

# LAGUNTZA PROGRAMA

**Eskola jazarpenaren aurreko prebentzio eta esku-hartze programa**

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

# LAGUNTZA
# PROGRAMA

**Eskola jazarpenaren aurreko prebentzio eta esku-hartze programa**

**Nafarroako Gobernua**
Hezkuntza Departamentua
**Gobierno de Navarra**
Departamento de Educación

*Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak beren laguntza eskertu nahi die Laguntza Programaren garabidean lagundu duten pertsona eta erakunde guztiei, eta bai gero batean lagun eginen diotenei ere.*

Titulua: Laguntza Programa. Eskola jazarpenaren aurreko prebentzio eta esku-hartze programa
Egilea: Nafarroako Gobernuko Bizikidetzarako Aholkularitza
Laguntzailea: Unax Flores Uribe

© 2015. NAFARROAKO GOBERNUA
Hezkuntza Departamentua

Diseinu grafikoa: www.cobo-munarriz.com
Inprimaketa: Idazluma Industrias Gráficas, S.A.
L.G.: NA-1557/2016

# AURKIBIDEA


**1. SARRERA ETA PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA** . . . . . 7

1.1 *Bullying* edo berdinen arteko jazarpenaren definizioa . . . . . 7

1.2 Fenomenoaren intzidentzia . . . . . 8

1.3 Programaren justifikazioa . . . . . 9

**2. PROGRAMA GAUZATZEKO PROZESUA** . . . . . 11

2.1 Lehen fasea (ikastetxe pilotuak) . . . . . 12

2.2 Bigarren fasea (beste ikastetxe batzuetara hedatzea) . . . . . 12

2.3 Laguntza Programako prestakuntza jarduerak . . . . . 13

2.4 Nafarroako irakasleendako oro-harko prestakuntza jazarpen gaietan . . . . . 17

**3. PROGRAMA ADIBIDEA ARBOLEDA BHIan** . . . . . 19

3.1 Aurkezpena . . . . . 19

3.2 Atzemandako premiak. Nondik abiatzen gara? . . . . . 20
- 3.2.1 Abiaburuko baldintzen azterketa . . . . . 21
- 3.2.2 Premia azterketaren ondorioak . . . . . 26

3.3 Ekintza planifikatuak . . . . . 26
- 3.3.1 Programa ikastetxean ageriratzeko eta zabaltzeko ekintzak . . . . . 26
- 3.3.2 Ikastetxearen egiturako eta antolamenduko ekintzak . . . . . 27
- 3.3.3 Ikastetxeko eremuen gaineko ekintzak . . . . . 29
- 3.3.4 Tutore Ekintzako Planaren ekintzak . . . . . 29
- 3.3.5 Curriculum ekintzak . . . . . 30
- 3.3.6 Arlo jakinetako ekintzak . . . . . 31
- 3.3.7 Ikastetxeko testuinguruaren gaineko ekintzak . . . . . 32
- 3.3.8 Laguntza Programak eskaintzen duenaz gaineko prestakuntza. . . . . . 32

3.4 Baliabideak eta materialak . . . . . 33
- 3.4.1 Programa itxuratzeko . . . . . 33
- 3.4.2 Tratu ona bultzatzeko ikasgela materialak . . . . . 33
- 3.4.3 Jazarpenaren inguruko ikasgela materialak . . . . . 34
- 3.4.4 Teatro foruma eta ikusentzunezko materiala . . . . . 35

3.5 Ekintzen eta atzemandako hobekuntzen ebaluazioa . . . . . 36

**4. ESKU-HARTZEA (PROTOKOLOA)** . . . . . 37

4.1 Eskola jazarpen kasuetarako protokolo eredua . . . . . 37

4.2 Ekintzarako Plana. Har litezkeen neurriak . . . . . 41

4.3 Kontaktu interesgarriak . . . . . 49

4.4 Protokoloaren amaiera . . . . . 51

**5. LAGUNTZA PROGRAMAREN EBALUAZIOA NAFARROAN** . . . . . 53

**6. ERANSKINAK** . . . . . 55

**1. eranskina.** Ikastetxeko zuzendaritzari jazarpeneko edo indarkeriazko kasuak gertatzen direnean idatziz adierazi beharrekoa. Esku-hartze eskaera . . . . . 56

**2. eranskina.** Egintzak egiaztatzeko txostenaren eredua . . . . . 57

**3. eranskina.** Zuzendaritzari eman beharreko neurrien proposamena, jazarpen kasu baten aurrean . . . . . 60

**4. eranskina.** Familiari komunikatzeko eta harekin hitzordua ezartzeko neurrien proposamena . . . . . 61

**5. eranskina.** Esku hartzeko eskaera, Hezkuntza Departamentuko bizikidetza aholkularitzari . . . . . 62

**6. eranskina.** Irakasleekin egindako elkarrizketen erregistroa familiaren baimen bat eskatzen denerako . . . . . 63

**7. eranskina.** Azken buruko txostenaren eredua . . . . . 67

**8. eranskina.** Gailu eta aplikazio teknologikoen bidez eragindako eskola jazarpeneko zein genero indarkeriako kasuetan egin beharrekoari buruzko jarraibide osagarriak . . . . . 70

# LAGUNTZA PROGRAMA




# 1. SARRERA ETA PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA

## 1.1 *BULLYING* EDO BERDINEN ARTEKO JAZARPENAREN DEFINIZIOA

Jazarpen fenomenoaren gaineko lehenbiziko azterlanak Europa iparraldean egiten dira 70. urteetako hamarkadan. Orduan *mobbing* hitza erabiltzen hasi ziren (“jazarri, inguratu”) gizakien arteko jazarpena aipatzeko. Eskandinavian hitz hori bera erabiltzen zen, hasiera batean, eskolako jazarpenaren fenomenoa izendatzeko. Dan Olweusek 1978an definitu zituen, lehenbiziko aldiz, ingelesezko *bully* (erasotzailea edo matoia) eta *bullying* (erasoa) hitzak eskola eremuko jazarpena aipatzeko.

Eskola jazarpena edo berdinen arteko tratu txarra dagoela esaten dugu ikasle batek behin eta berriz eta denbora tarte luze batez bere ikaskideen aldetik irainak, gizarte-arbuioa, intimidazio psikologikoa edo/eta eraso fisikoak sufritzen dituenean eta ondorioz biktima bihurtzen eta sentitzen denean (Olweus, 1998).

Euskaraz matonismoa, intimidazioa edo berdinen arteko jazarpena bezalako izenak erabiltzen dira. Berdinen arteko indarkeria da, nahiaren gainean egina, eta denboran errepikatua, biktima defentsa gabe eta ahal gabe uzten duena, berak baino botere fisiko nahiz sozial handiagoa duen erasotzaile bat edo batzuen mende. Haurren edo nerabeen artean egoten den isiltasun legearen ondorioz, egoera hori larriagotu egiten da eta, hortaz, zailago egiten da problema atzeman eta esku hartzea.

Eraso antzeko edo indarkeriazko ekintza guztiak ez dira jazarpentzat hartu behar; eskoletan maiz ikusten diren portaerak, hala nola berdinen arteko borrokak, adiskide aldaketak eta hausturak, eskolako materialen edo altxarien kontrako erasoak, diziplina faltak, gelaz barneko nahiz kanpoko disrupzioak eta abar, ez dira jazarpenak.

Avilés, Fenomeno honen gainean Espainian erreferentziazko autorearen ustez, eskola jazarpena badela esan ahal izateko, definizio honetan laburbiltzen diren ezaugarriak bildu behar dira: “Ikaskideen arteko intimidazio eta tratu txar errepikatuak eta denboran jarraikiak, matoi batek edo talde batek biktima ahalge bat umiliatu eta menderatzeko egiten dituztenak eta, ondorioz, haren biktimizazio psikologikoa eta gizarte arbuioa dakartzatenak” (Avilés 2003).

Jazarpen portaera hau noiznahi eta nonahi gerta daiteke. Azken urteotan teknologia berrietan (sare sozialak, mezu-programak...) aurkitu du toki aproposa garatzeko, hori da gaur ziberjazarpentzat ezagutzen duguna.

Jazarpena ez da indarkeria fenomeno bakartua, gure gizarteko baldintza sozial eta kulturaletan edukitzen ditu erroak, bertan ageri izaten diren beste hainbat indarkeria mota bezala. Gizarte problema zaharra da. Jazarpen egileak txikitatik “menperatze-sumisio” gisako harreman mota bat aurkitu eta handik aurrera hura erabiltzen du, onura eta saria lortzen dituelako haren bidez, aitormena, gizarte boterea, mirespena eta beldurra eskuratuz.

Horregatik arlo guztietatik egin behar da hezkuntzazko eta prebentziozko ekintza, eta gizartea ohartarazteko lana. Eskola jazarpen kasuak tratatzerakoan helburua ez da edo luke izan behar errudunak bilatzea, haiei eraso edo kriminalizatzeko; aitzitik, hezkuntza ikuspegi batetik lan egin behar da, jakinaren gainean gaudelarik kasuan parte hartzen duten guztiak lagundu eta babestu beharreko adingabeak direla.

## 1.2 FENOMENOAREN INTZIDENTZIA

Fenomenoaren gaineko ikerketak aski berriak dira. Eskandinaviako herrietan ikertu zen lehenbizikoz modu sistematikoan tratu txar hau. **Olweus**, Bergengo unibertsitateko irakaslea izan zen 1970ean lehenbiziko lan sistematikoa abiatu zuena.

Haren ondotik eta ildotik, Ingalaterran 80. urteen bukaeran eskola indarkeriaren gaineko ikerketak hasi ziren. Lanik aipatuenak eta esanguratsuenak hauek izan ziren: **Peter Smithena**, Sheffielden; **Mellorrena**, 1990ean Eskozian, eta **O'Moore**, **Kirkham** eta **Smith berak** Irlandan 1993-94 bitartean egin zutena Dublingo Trinity Collegeko *Anti-bullying research and Resource Centre* delakoan.

Alemania, Italia eta Portugalen ere hainbat ikerlan egin ziren 90. urteetan; Funk,1997, Genta, Menesini, Fonzi, Costabile eta Smith 1997, eta Pereira 1996, hurrenez hurren, batzuk baizik ez aipatzeko.

Espainian, SAVE (Sevilla Antiviolencia Escolar) eta ANDAVE (Andalucia Antiviolencia Escolar) programak bide-urratzaile izan dira berdinen arteko tratu txarraren problemari ekiteko (Ortega, 1992 eta 1994; Ortega eta kolab., 1998; Ortega eta Mora-Merchán, 2000). Aipatzekoa da, halaber, “Estudio de incidencia de la intimidación eta el maltrato entre iguales en la educación secundaria obligatoria mediante el cuestionario CIMEI” (Avilés, 1999) ikerlana, 2002an egina, zeina, nahiz irispide lokalekoa izan (Valladolid), baliagarria izan den fenomeno honek gure ikastetxeetan izan duen intzidentziara objektiboki eta zorroztasun estatistikoz hurbiltzeko.

*Bullying* delakoaren gaineko lehen ikerlanetan % 3-5 bitarteko intzidentzia aipatzen da. “Estudio sobre la convivencia escolar en la ESO de Navarra” txostenak, berriz, (2010eko maiatza) honela estimatzen zuen eskola jazarpenaren prebalentzia: % 4,3 biktima gisa eta % 2,7 jazarle gisa.

Berriki *Beat Bullying*, Britainiako gazte jazarpenaren kontrako elkarteak, baieztatu du Europako Batasunean 24 bat milioi haurrek eta gaztek nozitzen dutela jazarpena eta tratu txarra. Inkesta batzuetan biltzen denez, hamar gaztetatik seik nozitu izan dute jazarpen edo intimidazio moduren bat, hitzezkoa izan, psikologikoa, fisikoa nahiz teknologia berrien bidezkoa.

Eskura ditugun azken datuak *Save the Children* erakundeak 2015ean egin eta berriki argitaratu den jazarpenaren gaineko txostenak ematen dizkigu, zeinean, 12 eta 16 urte bitarteko DBHko 21.487 ikasleri egindako inkesta baten bidez aditzera ematen den haietatik % 9,3 batek jazarpena nozitu duela eta % 6,9 batek ziberjazarpena azken bi hiletan. Txosten honek komunitate autonomoka ematen dituen datuen arabera, Nafarroan jazarpen biktima izan diren haurren portzentaia, aldian behingo nahiz maizko biktimak, % 5,9 batekoa da; horrek azken tokian jartzen du Nafarroa. Ziberjazarpenari dagokionez, berriz, datua osotara % 4,6koa da, hau da, hamaseigarren tokian.

## 1.3 PROGRAMAREN JUSTIFIKAZIOA

Aurreko puntuan aditzera eman den bezala, datuen arteko oszilazio handia dela medio (iturria zein den, adin taldea zein den, eta ikertutako fenomenoa definitzerakoan izandako zehaztasuna zein izan den) zail egiten da errealitate honetara erabat modu objektiboan hurbiltzea; uste dugu, hala ere, aski dela halako jazarpen kasu bakar bat ere Programa bat abian jartzea justifikatzeko, problemari behar bezala ekiten zaiola bermatzeko, epe luzera pentsatua, erakundeek beren gain hartua, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza eta curriculum programan txertatua eta ikastetxe bakoitzaren berezitasunen arabera moldatua.

Egiaz esan dezakegu gure ikastetxe askotan ez dugula jazarpen edo ziberjazarpen kasu bakarrik ere “atzeman”, baina datuak ikusirik, badirudi ez dela zuhurregia esatea ez direla gertatzen edo ez direla gertatu.

Denok gogoan dugu Hondarribian 2004an gertatutako desgrazia latza; orduan Jokin C., 14 urteko gazteak berez buruaz beste egin zuen bere ikastetxean nozitzen ari zen torturari ihes egiteko. Heriotza hark balio izan zuen errealitate kezkagarri bat agertzera emateko eta hezkuntza komunitatea mobilizatzeko. AA.EE. askotan, geroztik, baliabideak ezarri ziren halako egoerei antz eman, aurrez galarazi eta haien aurrean esku hartzeko. Nafarroan 2005ean **Bizikidetzarako Aholkularitza** sortu zen, bai irakasleei, bai ikasleei eta familiei orientabide batzuk ematea helburu zuela, eskolako gatazka eta berdinen arteko jazarpen kasuen aurrean nola joka jakin zezaten eta bizikidetza planen eta antzeko gaien gainean informazioa zabaltzeko.

Aholkularitza honen ustez bizikidetza da pertsonak elkarrekin bizitzeko duten gaitasuna, elkarren errespetuan eta elkartasunean, dibertsitatea aitortuz eta errespetatuz, diferentziak eta besteren ikuspegiak baloratuz eta onartuz.

Eskolako eremuan bizikidetza ikasi eta irakatsi egiten da, eta hezkuntza eremu guztietan islatzen (gela, lantegiak, patioak, jantokia, autobusa...), kudeaketa tresnetan (bizikidetza plan bera eta bizikidetza araudia, curriculum proiektuak, urteko programazio orokorra...), eta parte-hartze eremuetan (Eskola Kontseilua, Guraso Elkartea, Klaustroa, Bitartekotza Taldea edo ikasle laguntzaileak...); hortaz, hezkuntza komunitate osoaren ardura da.

Uste dugu eremu horietatik guztietatik eragile guztiak inplikatu eta balio horiek lantzen baditugu, lortuko dugula galaraztea berdinen arteko taldean *bullying* bezalako perbertsio moralak erro egitea eta denak ukitzen dituen aurreiritzi katea zabaltzea. Uste dugu edozein *bullying* motaren kontrako edozein programa edo ekimenek fenomeno hori berori tratatu ez ezik, zenbait baldintza ezartzea hartu behar duela helburu ikasleak testuinguru baketsu, demokratiko eta harmoniatsu batean gara daitezen.

Urte hauetan guztiotan Bizikidetzarako Aholkularitzak maiz esku hartu izan du, ikuspuntu eta jokabide horretatik, berdinen arteko jazarpen kasuetan. Irakasleak prestatzen ere lan egin du, gatazken ebazpidean, emozioen heziketan, bitartekotzan, gelaren kudeaketan… ikastetxeetako bizikidetza planak biziagotzen eta Hezkuntza Departamentuaren beste anitz jarduera bultzatzen.

Nafarroan 2010. urtetik aurrera bizikidetza arautu egin da ikastetxeetan arau bat baino gehiagoren bidez: **47/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 23koa, 204/2010 Foru Agindua, abenduaren 16koa**; eta bai ere **57/2014 Foru Dekretua, ekainaren 2koa**, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa

Laguntza Programa proposamen bat da, hezkuntza komunitateak gonbidatzeko ibilbide bat hasi eta haren bitartez behar diren tresnak beregana ditzaten jazarpen edo ziberjazarpen problemak arrakastaz galarazteko.

Ohart-hartze bat abiaburu delarik, jazarpen gaietarako gaur ditugun premiak ezagutzea oinarri harturik, arau garapenak euskarri direlarik, (behar bezalako portaera kode batzuk sortu eta aplikatu beharra ezartzen baitute), curriculumetan ere esku hartuz, irakasleak prestatuz, informazioa koordinatuz, sektoreka jokatuz eta gure ekintzen emaitza ebaluatuz, lortuko dugu ibilbidea arrakastaz egitea.

Laguntza Programaren helburua da ikastetxeek eskola jazarpen kasuetarako prebentzio eta esku-hartze programa bat zehaztu eta aplikatu dezaten lortzea. Hartarako, Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitzak honako dokumentu gidari hau itxuratu du eta bai programako ekintzak planifikatu ere, zeinak irakasleendako hainbat prestakuntza, material bilduma bat eta laguntza bat barne hartzen dituen, dena irakasleei lagun egitea eta materialak irits-errazagotzea helburu. Lan honetan ezin aipatu gabe utzi dugu José María Avilésen laguntza, behar adina eskertu ezina, bere argitalpenen eskema kontzeptuala erabiltzen utzi ez ezik, bere aholkua eta prestakuntzarako bere laguntza eman baitizkigu. Bihoakio hemendik, bada, gure esker ona agertu digun disponibilitate eta inplikazioagatik. Ildo horretatik haren azken liburua, *Proyecto anti-bullying. Prevención del bullying y el cyberbullying en la comunidad educativa* (CEPE arg.) hartu dugu erreferentziazko testu edo lan manualtzat.




## 2. PROGRAMA GAUZATZEKO PROZESUA

Laguntza Programak eskolan jazarpen kasuetarako prebentzio eta esku-hartze programa bat  ezarri beharra dakar; programa hori aurrera eramateko, Hezkuntza Departamentu Bizikidetzarako Aholkularitzak prestakuntza, laguntzea eta material batzuk jarriko dizkie, lagungarri, eskura, ikastetxeei, ahal izan dugun bezain modu antolatu eta iritserrazean modutuak.

Ohart hartze bat abiaburu, eta bai jazarpen gaietan gaur dugun premiak ezaguturik, adituek egindako materialak, testuak eta dokumentuak euskarri harturik, (ildo horretan José María Avilés aipatu behar dugu bereziki), eta indarrean dauden lege arauak erabiliz, programa hau honakoetan esku hartuz garatuko da: curriculum mailan, irakasleen prestakuntzan, hezkuntza komunitate bakoitzeko sektore desberdinen koordinazioan eta ekintza guztien ondoriozko emaitzen ebaluazioan.

Programak behar diren tresnak eskaintzen ditu jazarpen/ziberjazarpen egoerak atzeman, diagnostikatu, aurrez galarazi, murriztu edo eta ezeztatzeko et, hartarako, ikastetxeko irakasleen inplikazioa behar du, talde bultzagile baten sorrera (Bizikidetza Batzordea edo Laguntza Talde bat), eta gauzatze prozesu bat jarraitzea, honako dokumentu honetan eskeman azaltzen den bezala.

## 2.1 LEHEN FASEA (ikastetxe pilotuak)

- Zenbat ikastetxe pilotu hautatuko dira Programa haietan ezartzeko.

  Bizikidetzarako Aholkularitzak ikastetxe multzo bat hautatu du, kontuan harturik zein etapatan lan egiten duen ikastetxe bakoitzak, publikoak ala itunduak diren, bakoitzaren hezkuntza programa eta, jakina, haien hasierako konpromisoa.

- Ikastetxe bakoitzaren izen-ematea eta konpromisoa formalizatuko dira (2016ko ekaina).

- Dokumentu gidaria argitaratu eta ikastetxe pilotu horiei bidaliko zaie (2016ko abuztua).

- Denak baterako hasierako bilera, ikastetxe pilotuei programa aurkezteko (2016ko iraila).

- Gaitze mintegirako deia zabalduko da, ikastetxe bakoitzean programa gauzatzeko arduradunentzat (2016/2017 ikasturteko lehen hiruhilekoa).

- Ikastetxe pilotuko klaustro osoarendako prestakuntza ikastarorako deia eginen da (2016/2017 ikasturteko lehen hiruhilekoa).

Bi prestakuntza jarduera hauek egiten diren aldi berean, ikastetxe bakoitzean gauzatuz joanen dira aplikazio fase desberdinak eta tokatzen diren neurri eta ekintzak.

Hartarako, dokumentu gidarian programa eredu bat egonen da, alegiazko ikastetxe batean diseinatua, programa gauzatzeko jarraibide izan dadin.

Bai dokumentu gidaria, bai prestakuntza eta bai aholkularitza ere lagungarri izanen dituzte ikastetxeek *bullying*-kontrako bere ekintzak hautatu eta planifikatzeko. Ikastetxe bakoitzak bere ezaugarriak eta bere historia desberdina duela egia delarik ere, uste dugu berdinen arteko intimidazioa eta tratu txarra modu sekuentziatu eta sistematikoan borrokatu nahi duen programa batek nahitaez aintzat hartu behar dituela fase batzuk, hala nola abiaburu puntua aztertu edo ikertzea; programaren inguruan eskema artikulatu bat planifikatzea; Programa praktikan jarri eta garatzea eta, azkenik, izandako emaitza jarraitu eta ebaluatu, eta hura hobetzeko proposamenak egitea.

## 2.2 BIGARREN FASEA (beste ikastetxe batzuetara hedatzea)

Fase honek bi alderdi ditu: alde batetik programa ikastetxe pilotuetan gauzatzen den bigarren urtea eta, bestetik, Foru Komunitateko beste ikastetxe batzuetara hedatzea, hura aplikatzeko interesa agertzen badute.

Bigarren urtean, aurrera eginen da curriculum materialen itxuratzean, ikasleei ikasgelan prestakuntza emateko jarduera koadernoak itxuratuz.

2016/2017 urtean, Programa ikastetxe pilotuetan gauzatzeko prozesua eta emaitzak ebaluaturik, gomit eginen zaie Nafarroako beste ikastetxe batzuei Programan parte hartzera, dela Bizikidetzarako Aholkularitzaren tutoretzapean, dela beren gain, dokumentu gidaria eta material osagarriak libreki erabiliz.

## 2.3 LAGUNTZA PROGRAMAKO PRESTAKUNTZA JARDUERAK

### "LAGUNTZA" IKASTAROA

1. **Titulua:** BERDINEN ARTEKO JAZARPENAREN PREBENTZIOA ETA TRATAMENDUA

2. **Modalitatea:** Ikastaroa

3. **Prozedura:** Buruz buruko eskolak

4. **Norentzat:** Laguntza Programako ikastetxe pilotuen klaustro osoak

5. **Deskripzioa:**

   Eskolako jazarpena ikasgeletan oraindik gertatzen den indarkeri mota da, hala atzematen dute hainbat ikerlanek eta bai Bizikidetzarako Aholkularitzan aurkezten diren kontsultek ere. Berdinen arteko intimidazio eta tratu txarren fenomeno hau (*bullying*, ingelesezko hitza erabiliz), osagai fisikoak, hitzezkoak, sozialak eta psikologikoak baditu, haren protagonista diren pertsonak markatuta uzten dituztenak (biktimak, erasotzaileak eta lekukoak). Azken urte hauetan eraso hauek teknologia berrien bidez ere hasi dira gertatzen.

   Ikastetxe guztiek izan behar duten ekintza protokoloaz gain (204/2010 Foru Aginduak agintzen duenez), fenomeno honi prebentzioaren ikuspuntutik aurre egiteko, hainbat hezkuntza neurri berariazko eta planifikatu modutu beharrak dira, benetako jazarpenaren kontrako plan bat osatzeko. Ildo horretatik eratu da ikastaro hau, zeinaren helburua den irakasleei behar duten prestakuntza eta baliabideak ematea Laguntza Programa beren ikastetxean ezartzeko.

6. **Helburuak:**

   ➜ Ikasgeletako jazarpenak eta ziberjazarpenak dituen benetako garrantziaz eta ondorioez ohart hartzea.

   ➜ Estrategiak eta metodologiak garatzea bai eskolako jazarpen klasikoa eta bai teknologia berrien bidezkoa atzemateko.

   ➜ Irakasleek fenomeno honen gainean, prebentzioaren gainean eta kasu konkretuen aurrean egin beharreko esku-hartzeen gainean duten informazioa hobetzea.

   ➜ Oro-harko eta ikasgelako estrategiak sartzea irakasleak, ikasleak eta familiak inplikatzeko problema honen prebentzioan, esku hartzean eta ebazpidean.

   ➜ Laguntza Programa ikastetxe bakoitzean ezagutzera eman eta garatzea.

7. **Edukiak:**
   a) Ikasgelan ardura eta erantzunbeharra partekatzen (heldu hurbilekoa eta positiboa, bizikidetzaren eredu).
   b) Indarkeriaren aurreko ikuspen eta jarrera hartzeetan ohartasuna, ezagutza eta argitasuna. Inteligentzia emozionala.
   c) Eskolako jazarpena: lehen, bitartean eta ondoren. Ziberjazarpena.
   d) Eskolako jazarpenaren jatorriak eta ondorioak.
   e) Esku hartzeko estrategiak eta metodologiak: bakarkako jarraipena, elkarrizketak, Pikas metodoa, komunikazio gaitasunak, entzumen aktiboa, indarkeriarik gabeko komunikazioa, garapen morala, enpatia, umore zentzua ikasgelan eta abar…
   f) Jazarpena atzemateko adierazleak eta ebazteko orientabideak.
   g) Laguntza Programa, jazarpen kontrako plan gisa.
   h) Aurre egiteko eta ekiteko protokoloa, kasu bat atzeman denean.

8. **Metodologia:** 3na orduko 4 saio eginen dira, eta haietan azalpen teorikoak eta dinamika interaktiboak bateratuko:
   - *Bullying*aren gaineko azalpen teoriko partekatua.
   - Dinamika eta jarduera praktikoak, bai taldean gogoeta egiteko ikastaroko edukien gainean eta bai Laguntza Programa ezartzeko orientabideen gainean.

9. **Hizlariak:** Patxi Sanjuán eta Belén Pérez de Prado

10. **Jardueraren arduraduna:** Bizikidetzarako Aholkularitza. Cristina Satrústegui

11. **Non:** Bizikidetzarako Aholkularitza

12. **Iraupena:** 12 h

13. **Aldia / Datak:** Programa aurkezteko saioan emanen dira aditzera, irail hasieran.

14. **Orduak:** 17:00etatik 20:00etara.

15. **Toki kopurua:** Klaustro osoa (50 tokiko gutxienekoa iristen ez bada, agian bi ikastetxe batu beharko dira jarduera burutan ateratzeko).

16. **Hizkuntza:** Gaztelania.

## GAITZE MINTEGIA

1. **Titulua:** ESKOLAKO JAZARPENA. PREBENTZIO PROGRAMA
2. **Modalitatea:** Mintegia
3. **Prozedura:** Buruz buru
4. **Norentzat:** Laguntza Programa gauzatzea koordinatzeko ardura duten irakasleak.
5. **Deskripzioa:**

   Eskolako jazarpena ikasgeletan oraindik gertatzen den indarkeri mota da, hala atzematen dute hainbat ikerlanek eta bai Bizikidetzarako Aholkularitzan aurkezten diren kontsultek ere. Berdinen arteko intimidazio eta tratu txarren fenomeno honek (*bullying*, ingelesezko hitza erabiliz), osagai fisikoak, hitzezkoak, sozialak eta psikologikoak baditu, haren protagonista diren pertsonak markatuta utzi ohi dituztenak (biktimak, erasotzaileak eta lekukoak). Azken urte hauetan eraso hauek teknologia berrien bidez ere hasi dira gertatzen.

   Mintegi honek hainbat trebetasun, estrategia eta tresna emanen dizkie bertan parte hartzen duten irakasleei, beren ikastetxean Laguntza Programa gauzatzeko, eskolako jazarpena aurrez galarazi eta esku hartzea helburu duena.

6. **Helburuak:**
   - ➜ Jazarpenak eta ziberjazarpenak duten benetako garrantzia eta ondorioak ezagutzea.
   - ➜ Berdinen arteko jazarpenaren aurrean gogoeta eta ekintza egitea, bai problemaren prebentzioan eta bai haren ebazpidean.
   - ➜ Guztien artean, eskolako jazarpenaren aurrean prebentzioa eta erreakzioa antolatzen dituen Laguntza Programa abiarazten, ebaluatzen eta etengabe hobetzen parte hartzea.
   - ➜ Laguntza Programaren proposamenak ikastetxe bakoitzeko ezaugarrien arabera moldatzea eta estrategia praktikoak garatzea jazarpena atzeman eta menderatzeko.
   - ➜ Programaren gauzatzea eta abiatzea planifikatzea.
   - ➜ Parte hartzaile bakoitzak bere ikastetxean dituen egoera jakinetan esku hartzeko ekimen praktikoak egitea.

7. **Edukiak:**

   a) Eskolako jazarpena. Kontzeptua. Errakuntzak eta topikoak. Teknologia berriak eta jazarpena. Jazarpenaren ondorioak.

   b) Zer premia dauden atzematea.

   c) Prebentzioa: prebentzioa errazten duten estrategiak eta metodologiak.

   d) Jazarpen kasuen aurreko esku-hartzea. Jazarpena atzemateko adierazleak eta ebazteko orientabideak.

   e) Irakasle batek behar dituen komunikazio trebetasunak honelako programa baten buru izateko.

   f) Laguntza Programa hezkuntza komunitate batean.

   g) Eskolako jazarpen kasuen aurreko ekintza protokoloa

   h) Programaren ebaluazioa.

8. **Metodologia:**

   3na orduko bederatzi saio buruz buruko.

   Buruz buruko 27 ordu horiez gain, beste 8 izanen dira programa estandarra planifikatu eta testuinguruan ezartzeko.

   Edukiak azalpen teorikoen, talde lanaren eta dinamika interaktiboen bidez garatuko dira.

   Azken saioan irakasleek beren ikastetxeetan egin dituzten ezartze lanak azalduko dira eta hizlariak ebaluatu egingo ditu; ebaluazio positiboa beharko da azken buruko ziurtagiria eskuratzeko.

9. **Hizlaria:** Patxi Sanjuán eta Belén Pérez de Prado

10. **Jardueraren arduraduna:** Bizikidetzarako Aholkularitza

11. **Iraupena:** 35 h

12. **Aldia / Data:** ikasturteko lehen hiruhilekoa.

13. **Toki kopurua:** 30

14. **Gutxienez zenbat partaide:** 15

15. **Hautatze irizpideak.**
    1. Laguntza Programari atxiki diren ikastetxeetako irakasleak.
    2. Zuzendaritzak 17/18 ikasturtean Laguntza Programari atxikitzeko asmoa agertu duten ikastetxeetako irakasleak .
    3. ikastetxeetako bizikidetza arduradunak.
    4. Izen ematearen hurrenkeran.

## 2.4 NAFARROAKO IRAKASLEENDAKO ORO-HARKO PRESTAKUNTZA JAZARPEN GAIETAN

Irakasleendako eskola jazarpenaren gaineko prestakuntzak bide luzea egin du Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitzak urtero antolatzen duen eskaintzaren barnean. Hala ere, prestakuntza eskaria ez da ahitzen ikasturtez ikasturte eta Bizikidetzarako Aholkularitzak gero eta kasu gehiagori kasu egin diela atzematen da, gainera.

Horregatik, Nafarroako edozein irakaslek, Laguntza Programako ikastetxe batekoa ez bada ere, zilegi du jazarpenaren gainean oro-harko moduan ematen den prestakuntza eskatzea.

### A. JARDUERA OROKORRAK

**A.1 Laguntza Programa oro har aurkeztu eta zabaltzeko informazio saioa:**

Saio honetan edozein ikastetxetako irakasleek izen ematea daukate.

Edozein ikastetxetako irakasleentzat, Bizikidetza Batzordeentzat, orientazio departamentuentzat eta zuzendaritza taldeentzat pentsatutako jarduera da.

**A.2 Gaitasuna hartzeko ikastaroa:**

ILZan garatzen den jarduera da, beren ikastetxean jazarpenaren kontrako Laguntza Programaren arduradun izateko ziurtagiria eskuratu nahi duten irakasleentzat. Laguntza Programa garatzeko, ikastetxeek gutxienez bertako irakasle bat edo bi gaiturik eduki beharko dituzte, mintegi hau eginik. Hala ere, mintegi honetan Laguntza Programako ikastetxeetan ez dauden irakasleek ere hartu dezakete parte, beti ere behar adina toki badaude.

### B. IKASTETXEAN EGINDAKO JARDUERAK

**B.1. Informazio saioak**

Saio hauek ez dira Laguntza Programako ikastetxe pilotuentzat, gainerako ikastetxeentzat baizik. Irakasle talde bat edo klaustro bat sentikortu nahi dute eskolako jazarpenaren gaiaren gainean eta gogoeta eragitea ere bai, Laguntza Programa beren ikastetxean ezartzeko aukerari begira.

**B.2 Sarrera ikastaroa**

Ikastaro hau, buruz buruko 12 ordukoa, Laguntza Programara atxikitzen den ikastetxe bakoitzean eginen da; 4 saioa izanen ditu eta haien edukia gai hauen gainean ariko da: jazarpena kontzeptua eta jazarpena motak, ikasturte desberdinetan garatu beharreko ekintzak eta hezkuntza edukiak eta baliabide eta material didaktikoak.

**B.3 Informazio saioak lan taldeekin**

Modalitate hau irakasle prestakuntzaren lagungarri edo jarraigarri eskaintzen zaie aurreko ikasturteetan jadanik Laguntza Programa hasia duten ikastetxeei. Informazio saio bat da, berariazko lan talde gisa eratu diren irakasle talde bat eskatua.




# 3. PROGRAMA ADIBIDEA ARBOLEDA BHIan

## 3.1 AURKEZPENA

Arboleda BHIko programa eredu izan nahi duen proposamen bat da, hezkuntza komunitatek bere ikastetxean behar diren anti-*bullying* ekintzak planifikatu ahal izan ditzan. Hala ere, ikastetxe bakoitzak bere ezaugarriak, bere historia irakasle eta ikasle desberdinak ditu, eta beraz programa moldatu beharra izanen da.

| FASEa | ATAZA | ARDURADUNA | NOIZ |
|---|---|---|---|
| 1. Abiapuntuko egoeraren azterketa fasea | Premiak atzemateko tresnak osatzea. | Ikastetxeko zuzendaritza taldea. Bizikidetza Batzordea/ **Laguntza Taldea** eta Koordinazio Pedagogikoko Batzordea | 1. hiruhilekoa |
| 2. Programa Planifikatzeko fasea | Helburuak ezartzea | Ikastetxeko zuzendaritza taldea. Bizikidetza Batzordea/ **Laguntza Taldea**. | 1. hiruhilekoa |
| 3. Abian jartzeko fasea | Ekintzen garabidea | Tutoreak eta Bizikidetza Batzordea / **Laguntza Taldea** | 2. hiruhilekoa |
| 4. Ebaluazio fasea | Emaitzak errebisatu eta proposamen berriak egitea | Bizikidetza Batzordea/ **Laguntza Taldea** | Maiatza |

Arboleda BHIa alegiazko ikastetxe bat da, asmoa zelarik ahalik eta zehatzen islatzea Nafarroako ikastetxe askoren ezaugarri orokorrak, beren sendogune eta ahulguneekin.

Nahiz eta berdinen arteko jazarpena hezkuntza etapa guztietan tratatu beharreko fenomenoa dela uste badugu ere, Lehen Hezkuntzako 4.ean eta Bigarren Hezkuntzako 1.an zentratu dugu arreta, ikerlan gehienek baitiote jazarpena maila horietan azaltzen dela argienik. Ez dugu horratik alde batera utzi gainerako mailetan egin daitezkeen esku-hartzeak, batez ere gehiago prebentzioaren ikuspuntutik, hezkuntza sozio-emozional eta balioei buruzkoaren inguruko alderdietan, bizikidetza arautzen duten jarduerak bultzatuz eta inplikaturik dauden sektore guztiak inplikatuz.

Abiapuntutzat, komeni da seinalatzea Arboleda BHIak Bizikidetza Planaren Urteroko Konkrezioan idatziz jasota utziko duela Laguntza Programa garatzeko duen asmoa.

## 3.2 ATZEMANDAKO PREMIAK. NONDIK ABIATZEN GARA?

Gure ikastetxeko errealitatea aztertzea helburuak finkatu baino lehen egin beharreko lana da, edo baliabideak bilatu, estrategiak planifikatu edo teknikak erabili aurrekoa. Azterketa hori, ikastetxean egin behar den beharrezko debatearen osagai da, behar bezalako neurriak hartuko badira.

Gure ikastetxeko errealitatea aztertzeko “Protocolo de análisis de las condiciones de partida” eta “El protocolo de análisis de nuestra respuesta al maltrato entre iguales” erabili ditugu (Jose Maria Avilés Martínezen “Programa Anti*bullying*” liburuko B.1 eta B.2 ERANSKINAK).

Hauek ere oso tresna baliagarriak izan daitezke jazarpenaren inguruko alderdiak ebaluatzeko:

- PRECONCIMEI (**Avilés 2002**)
- DAFO azterlana
- Txekeatze zerrendak ikasgelan:
    a) *Mi vida en la escuela* (**Arora 1989**)
    b) *Zer moduz zaude gelan?* (**Lourdes Escribano**)

Tresna horien bidez lortutako emaitzak azterturik, zenbait ondoriotara iritsi gara:

### 3.2.1 Abiaburuko baldintzen azterketa

| IKASTETXEKO GIROA | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa eta kolaborazioa oro har ona da, familiek modu erraza dute tutoreekin hitzordu bat hartzeko, eta bestetik familia gehienak agertu egiten dira ikastetxetik deitzen zaienean.<br>✓ Irakasleek informazioa ematen diete familiei atzemandako indarkeri edo tratu txar problemen gainean.<br>✓ Ikasleek oro har iritzi ona dute irakasleen gainean.<br>✓ Ikasleen artean bizikidetza normala egoten da, ikasle etorkinen artean problema larririk gabe.<br>✓ Ez da ageri ikasleen arteko lehiakidetza harreman latzik. | ✗ Familiek ezin dute erraztasun berarekin irakasle guztiekin kontaktatu.<br>✗ Irakasleek ez dakite garbi zer informazio hartu eta eman behar dien bere lankideei jazarpena kasuak gertatzen direnean.<br>✗ Ikastetxera berri etortzen diren pertsonei ez zaie esplizituki informazioa ematen ikastetxeko hezkuntza asmoen eta jazarpenaren kontrako neurrien gainean.<br>✗ Ikastetxeko agirietan ez dago anti*bullying* dekalogo edo deklaraziorik, ikastetxearen jarrera argi islatzeko modukorik.<br>✗ Ikasle gehienek ez dute ohiturarik gurasoekin beren kezka eta problemen gainean hitz egiteko.<br>✗ Ez da programatzen eskolaz kanpoko jarduerarik irakasle eta ikasleekin.<br>✗ Bizikidetza problemak ageri dira oztopo akademikoak eta interakzio sozialeko problemak eta genero estandarraz kanpoko interes eta afizioak dituzten ikasleekin. |

| CURRICULUM IKUSPUNTUTIK EGINDAKO EKINTZAK: | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Tutoreok ikasleen arteko gatazkez arduratzen gara.<br><br>✓ Egoerak hala eskatzen badu, gela-taldean problemez mintzatzen gara.<br><br>✓ Irakasleak oro har ikasleez arduratzen dira.<br><br>✓ Irakasle gehienek badakite halako kasuetarako protokolo bat badela.<br><br>✓ Jarduera puntualak egiten dira ikasgelan sare sozialek dituzten arriskuak ikasgelan tratatzeko.<br><br>✓ Tutore batzuek ikasleekin hitzartuta finkatzen dituzte bizikidetza eta jarduera arauak. | ✗ Gelan gutxitan egoten da gatazken eta tratu txarren gaineko eztabaida, ez da denbora bat ezartzen horiek konpontzeko, gertatzen direnean, eta ez da jarduerarik egiten indarkeri egoerak aztertu eta haiek nola konpondu bilatzeko.<br><br>✗ Ez da erraztasunik ematen ikasleek berek beren anti*bullying* arauak egiteko<br><br>✗ Ez dago ohiturarik ikasle-irakasleen artean problemen gainean hitzegiteko.<br><br>✗ Ez dago ohiturarik ikasgeletan ikaspen kooperatiboko metodologiak erabiltzeko.<br><br>✗ Geletan ez da garatzen komunikazio sistema demokratikorik erabakiak hartzeko, erantzunbeharra partekatzeko...<br><br>✗ Irakasleek ez dute behar bezalako prestakuntza eta prestakuntzarik ikasgeletako intimidazio eta tratu txarren problemei aurre egiteko.<br><br>✗ Irakasle askok nekez bereizten dute zer diren *bullying* kasuak, ziberjazarpena, eta gatazka egoerak.<br><br>✗ Ikastetxean ez dago antolatuta berdinen arteko laguntza sistema bat, ikasle mentoreak, eta abar.<br><br>✗ Ikastetxean ez dago eraturik ikasleak tutorizatzeko edo mentorizatzeko sistemarik.<br><br>✗ Informazio eta segurantzia falta dago irakasle eta familien artean Internetek dituen arriskuen gainean.<br><br>✗ Gutxi lantzen dira ikasleekin trebetasun sozialak, gatazkak ebaztekoak eta komunikaziokoak.<br><br>✗ Gutxitan egiten dira joko egituratu kooperatiboak patioan edo eten denboran. |

| IKASTETXEKO JAZARPENAREN KONTRAKO EREMUAK | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Ikastetxe eremua eta ikasgela bera toki atseginak dira, argitsuak eta behar bezalako tenperatura dutenak.<br><br>✓ Txanda sistema bat eratuta dago ikasleen artean, materialak bildu, zaindu eta garbiketa egiteko.<br><br>✓ Ikasgelako eta ikastetxeko arauak badaude materialak eta instalazioak lorrintzea galarazteko.<br><br>✓ Postontzi bat dago nahi duenak ikastetxean jazarpen kasua dagoela adierazi edo salatzeko. | ✗ Ikasgelan ez da egiten eskuarki berdinen arteko indarkeria eta tratu txarren kontrako mezurik.<br><br>✗ Irakasle, ikasle eta familiek ez dute ohiturarik elkarlanean aritzeko ikastetxeko eremuak hobetu, atondu eta apaintzen.<br><br>✗ Ez da egin arrisku maparik indarkeri egoerak izan diren eta ikasleak arriskuan sentitu diren tokiak atzemateko.<br><br>✗ Langile ez irakasleek ez dute horren gaineko prestakuntzarik hartu.<br><br>✗ Ikastetxean ez dago helduen begiraletzapeko toki segururik, bazkariaren aurreko nahiz ondoko denboran irakurri, atseden hartu edo jostatzen ibiltzeko modukorik.<br><br>✗ Ikastetxean badira gainbegiratzeko zailak diren zokoak eta eremuak.<br><br>✗ Ikasle nagusiagoek ez dute ardurarik izaten patioa begiratzeko.<br><br>✗ Ez da aintzat hartu kanpoko eragileek (familiek, praktikako ikasleek, eta abarrek) ikastetxeko eremuak jolasorduan gainbegiratzeko aukera<br><br>✗ Ikastetxeko ikasle guztiak batera ateratzen dira jolasordura.<br><br>✗ Ikastetxeak ez du prebentziorik planifikatu sare sozialetako arrisku profilen gainean (prestakuntza, kontsulta birtualak). |

| JAZARPENAREN KONTRAKO LANA ERRAZTEN DUEN TESTUINGURUAREN GAINEAN | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Familia gehienentzat arrakasta eta lehiakortasuna ez dira balio lehenetsi bakarra.<br><br>✓ *Bullying* eta ziberjazarpen kasuek kezka eta ezinegona sortu dute hezkuntza komunitatean. | ✗ Haien laguntza gehien behar dugun familiak dira hain zuzen gutxien parte hartzen dutenak.<br><br>✗ Familietako batzuek ezin diote lagundu seme/alabari eskolako atazetan.<br><br>✗ Jazarpen portaera duten seme-alaben familiak defentsiban jartzen dira seme-alabak babestu nahirik.<br><br>✗ Auzoan ez dago komunikabiderik indarkeriaren kontrako proposamenak heda ditzakeenik.<br><br>✗ Bertako agintarien aldetik ez dago aisia proposamenik.<br><br>✗ Familia gehienek ez dakite bereizten zer den eta zer ez den *bullying* eta ziberjazarpena.<br><br>✗ Familiek garrantzi gehiago ematen diote seme-alaben garapen akademikoari garapen sozialari baino.<br><br>✗ Indarkeria ez fisiko mota batzuk oraindik toleratzen eta erabiltzen dira. |

| JAZARPENAREN AURREKO ESKU-HARTZEA | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Familiei berehala ematen zaie informazioa haien seme-alabak indarkeria edo jazarpen kasuetan sartuta gertatzen direnean.<br><br>✓ Intzidentzia parteak badaude *bullying* eta ziberjazarpen kasuetarako.<br><br>✓ Departamentuko eta Aholkularitzako eskuliburuak baditugu protokoloa behar denean abian jartzeko. | ✗ Jazarpenaren kontrako protokoloa ez du hezkuntza komunitate osoak ezagutzen.<br><br>✗ Oro har, jendeak ez daki zein izan behar duten lehenbiziko ekintzek kasu baten berri jakiten dugunean (biktima babestu, kontaktuak blokeatu eta frogak bildu).<br><br>✗ Ez dago kasuak kudeatzen dituen lantalderik.<br><br>✗ Ikastetxean eremu komun berberak erabiltzen dituzten bi pertsona edo gehiagoren artean *bullying* edo *ziberbullying* kasu bat dagoela ikusten denean, babestea zaila da. |

| IKASTETXEAK ZER BALIABIDE DITUEN | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Ikastetxeak kanpo zerbitzuetatik laguntza hartzen du (Hezkuntza Departamentua, Aholkularitza, Pediatria, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua).<br>✓ Administrazioa gai honen gainean sentikorturik dago eta zenbait zerbitzu eskaintzen dizkio komunitateari (telefono bidezko eta buruz buruko arreta, prestakuntza).<br>✓ Irakasle batzuk prestakuntza hartzen ari dira kooperaziozko metodologietan.<br>✓ Irakasle batzuek ikasgelarako ikaspen-zerbitzu jarduerak proposatzen dituzte.<br>✓ Ikastetxeko Guraso Elkartea bat dator programaren helburuarekin | ✗ Ikastetxeak ez du jazarpenari kontra egiteko behar den aurrekonturik.<br>✗ Herriko eta gizarteko agintariek ardura gutxi izaten dute jostetarako eta atsedenerako eremu osasuntsu eta seguruak diseinatzeko.<br>✗ Ez dago pertsona prestaturik ikasleei lagun egiteko eskolako garraioan, berdinen arteko gatazketan nola esku hartu dakienik.<br>✗ Ez da ezagutzen ez erabiltzen *on line*ko baliabiderik bizikidetza gaiei aurre egiteko.<br>✗ Ez dago koordinazio handirik herriko agintariekin jazarpenaren kontrako borrokan elkarlanean aritzeko. |

| ANTOLAMENDUZKO OSAGAIAK | |
|---|---|
| **SENDOGUNEAK** | **AHULGUNEAK** |
| ✓ Familiek ohitura dute eskolatik beren seme-alaben portaera eta integrazio sozialaren gaineko informazioa hartzeko.<br>✓ Bizikidetza araudi argia dago eta ezarri egiten da.<br>✓ Inplikaturik dagoen Laguntza Taldea/ Bizikidetza Batzorde bat dago. | ✗ Ez da berdinen arteko laguntza sare formalik, ikasleei laguntzeko.<br>✗ Ez dago berariazko komunikazio sistemarik indarkeria edo jazarpena nozitzen duten ikasleek gertatu dena kontatu ahal izateko.<br>✗ Irakasleek ez dute berariazko ordurik lan horretarako.<br>✗ Irakasleek eskola ordu gehiago dute eta ikasgelan ikasle gehiago.<br>✗ Ez dago behar adina irakasle edo bestelako heldu jolasorduak begiratzeko eta ez da beharrezkotzat juzgatzen jokoak egituratzea.<br>✗ Ikasgelek ratio handia dute.<br>✗ Ez dago ikasle elkarterik ikastetxeko bizikidetzan eta arauetan lagun dezakeenik. |

### 3.2.2 Premia azterketaren ondorioak

Emaitza hauetatik zenbait puntu azpimarratu nahi ditugu esku-hartze helburu gisa landu litezkeenak.

Alde batetik, badirudi gertatutakoa kontatzen duenak ez daukala bermaturik sekretu eta anonimatu baldintzarik.

Gainera, gertatuak berresteko prozesu exhaustibo eta kontrolatu bat egiten bada ere, inplikaturik dagozkeen guztiei galdetuta, horrela gertatuaren bertsio osoagoa eta zehatzagoa izateko, hala ere irakasle gehienei ez zaie galdetzen, haien erantzunen bat-etortzea baloratzeko.

Badirudi, bestalde, ikastetxean ez dagoela erreferentziazko unitaterik kasuen kudeaketa koordinatzeko, eta, gauzak horrela, kasuak lantzen dituzten pertsonek, askotan berberak, ez dute beti erregistro eta dokumentazio protokolo idatzien gainean egiten, eta ez dute hori egiteko debora tarte zehatzik izaten, ez eta ezarritako irizpiderik ere espedientea hasi ala ez erabakitzeko.

Hori horrela, argi gelditu da ekintza planifikatuak aplikatu beharra.

## 3.3 EKINTZA PLANIFIKATUAK

Ondoren aipatzen ditugun ekintzak aukera zerrenda irekia baizik ez dira, Arboleda ikastetxeak erabili dituenak, behar duenerako egokienak haietatik hautatzeko.

Ekintza hauek bereziki Lehen Hezkuntzako laugarren kurtsoan eta Bigarreneko lehenengoan aplikatzeko pentsatuta daude; hala ere, gehienak goragoko nahiz beheragoko kurtsoetan ere aplika litezke, irakasleak ontzat jotzen dituen ñabardura metodologikoak erantsiz.

Era berean, programa aplikatzearen bigarren urtean, ikastetxeak erabakiko du ea beste kurtso batzuetan curriculum ekintza planifikatuak sartu behar diren.

### 3.3.1 Programa ikastetxean ageriratzeko eta zabaltzeko ekintzak

- FAMILIEKIN:
  Ikasturtearen hasieran, familiekin egiten diren bileretan, programaren lerro nagusiak esplikatuko dira, hartarako itxuratu den dokumentazioa erabiliz. Problemari antz eman eta aurre emateko jarraibideak emanend ira, baldin gure seme-alabetakoren bat jazarpen kasuren batean parte izan bada, dela biktima gisa, dela jazarle gisa edo lekuko isil gisa. Era berean, gonbit eginen zaie ikasturte osoan izanen diren jardueretan parte hartzera, berariaz gai honen inguruan egindakoetara.

- IRAKASLEEKIN:
  - Irakasleei klaustroan emanen zaie programari buruzko informazioa eta, bereziki, ekintza protokoloari buruzkoa.
  - Pertsona berriei ikastetxean harrera egiteko protokoloan, programaren helburuei eta jazarpenaren kontrako neurriei buruzko informazioa emateko bideak sartzea.

- IKASTETXEKO EREMU MAIZ IBILIETAN:
  - Ikastetxeko agirietan eta eremu agerikoetan esplizituki azpimarratzea INORK EZ DUELA ESKUBIDERIK INOREZ ABUSATZEKO.
  - Kartelak, pegatinak, triptikoak, pinak eta abar egitea jazarpenaren kontra, ikastetxearekin adostutako momentuetan.

### 3.3.2 Ikastetxearen egiturako eta antolamenduko ekintzak

- Laguntza Taldea / Bizikidetza Batzordea eratzea.
  Arboleda BHIan Laguntza Talde bat eratuko da, osakeraz Bizikidetza Batzordearen antzekoa, honako eginkizunekin:
  - Laguntza Taldeak *on line*ko baliabideak eta material digitala bildu, hautatu eta gainerako irakaskideen esku jarriko ditu ikasleekin bizikidetzaren inguruko hainbat alderdi lantzeko, bereziki jazarpenari dagozkionak.
  - Era berean, talde hau erreferentzia izanen da programa ageriratu eta zabaltzeko ekintzak, curriculum neurriak, antolamendukoak, Tutoretza Planekoak, testuinguruaren gainekoak edo prestakuntzakoak koordinatzeko, nahiz eta zilegi den eginkizunak beste pertsona batzuen edo ikastetxeko egituren esku ere uztea.
  - Lagun egin eta orientazioa emanen die benetan gertatutako jazarpen kasu batean esku hartzeko Zuzendaritzak izendatu dituen pertsonei.

- Bizikidetza araudia moldatzea ziberjazarpenaren edo sare sozialen arriskuen prebentzioa egiteko bideak sartzeko.

- Hezkuntza komunitatean jazarpenaren kontrako adierazpen instituzional bat itxuratu eta onestea. (Avilésen eskuliburuko J.2.a jarduera)

- Jazarpena ebaluatzeko probak eginaraztea. (PRECONCIMEI)
  (*Zer moduz zaude gelan? ¿Qué tal estás en clase?*, Escribano)
  (Eskola indarkeriazko galdeketa errebisatua (CUVE-r) Álvarez García *et al.* 2011)

- “Harrera plan” bat abian jartzea (*Acoso escolar Orientación y tutoría*, Blanchard eta Muzás)

- Berdinen arteko laguntza egitura bati hasiera ematea, mentorizazioa, ikasle laguntzaileak, bitartekotza taldea… (Torrego, Avilésen eskuliburua, Andaluziako erkidegoa).
  - Ikasleak hautatzeko irizpideak ezartzea.
  - Hautatutako ikasleei prestakuntza ematea.
  - Berdinen arteko laguntzarentzat sari publiko bat eratzea.
  - Ikasleekin gainbegiratze bilerak antolatu eta egitea laguntza sareen jardueraren gainean.

- Jolasorduen gainbegiratzea antolatzea.
- Sare sozialetan alerta taldeak antolatzea.
- Astero bilera ordu bat ezartzea Zuzendaritza Taldearen eta Bizikidetza Koordinatzailearen artean.
- Laguntza Taldeak astero ordu bateko bilera eginen du bere lan orduen barrenean.
- Hezkuntza Departamentuari ordu dedikazioa eskatzea Laguntza Programaren arduradunarentzat .
- Tutoreek epez epe bilera eginen dute ikasgelako delegatuekin atzemandako zailtasunak jorratu eta hobekuntza proposamenak egiteko.
- Telefono edo helbide elektroniko bat abian jartzea informazioa eman eta jasotzeko.
- Gaiaren gaineko horma-irudi, kontaera, argazki edo bideoen lehiaketen deialdia egitea.
- Ikastetxean sentikortze kanpaina bat antolatzea JAZARPENARI EZ egunaren barnean.
- Kartel erantsialdia ikastetxean eta auzoan.
- Ber-heziketako erabakiak hartzea arrisku egoeretan sartutako ikasleekin. (21. ataza, Avilésen eskuliburua).
- Familiei hezkuntza jarraibideak ematea jazarpenaren kontrako balioak lantzeko diptikoen edo bestelako materialen bidez.
- Familiek jazarpenaren gainean duten aurrejuzgu eta sinismenak biltzea..
- Aztertzea zergatik familia gutxi batzuek ez dieten irakasleei laguntzen.
    - Irakasleek ebaluazio inkestak eginaraziko dituzte irakaslanaren gainean, ikasturte bukaeran.
    - Guraso Elkarteari eskatuko zaio emaitzak aztertu eta ebazpideak proposatzeko.
    - Emaitzak eskuratu ondoren, Laguntza Taldea edo Bizikidetza Batzordeak baloratu egingo dute zer aukera dauden problema bilakarazteko..
- Eskolaz kanpoko jarduerak programatzea irakasle eta ikasleekin.
- Irakasleek, ikasturte hasieran, eskolaz kanpoko edo osagarrizko jarduerak eratuko dituzte. Nahitanahiez, jarduera horietako bi edo hiru zuzenean bizikidetza gaien ingurukoak izanen dira.

### 3.3.3 Ikastetxeko eremuen gaineko ekintzak

- Ikasgeletan arrisku mapa bat egitea atzemateko non izan diren edo izan daitezkeen jazarpen egoerak eta zein diren ikastetxeko tokirik seguruenak.

- "Toki segurua"  kartel lehiaketa ere proposa liteke. Zuzendaritzak edo Bizikidetza Batzordeak toki ez hain seguruen mapa ere eginen dute.

- Zuzendaritzak eta ikasleek egindako mapak oinarri, erabakiak hartuko dira toki gutxi seguruen gainean, eta gainbegiratutako eremuak sortuko dira (liburutegia, patioko edo jangelako eremu jakin batzuk…). Gainbegiraleak irakasleak, familiakide boluntarioak, ikasle laguntzaileak, PASekoak… izan daitezke.

- Jolasordu eremuak egituratzen dituen mapa bat itxuratzea eta joko sorta bat antolatzea, elkarlaneko jokoak lehenetsiz (Erreferentzia: Bizikidetzarako Aholkularitza, Elkarlaneko Jokoen lehiaketa kanpaina).

### 3.3.4 Tutore Ekintzako Planaren ekintzak

- Elkarrekin prestatzea irakasleek ikasgelan jazarpenaz hitzeginen duten “lehen aldia”. (18. ataza, Avilésen eskuliburua)

- Ikasleak ikasgelan banatzerakoan, jazarpena galarazteko irizpideak erabiltzea.

- Ikasgelako delegatuen hautaera tutoretzetatik lantzea eta bizikidetzarekin eta taldean gatazkak atzematearekin lotura duten eginkizunak esleitzea.

- Ikasleek berek jazarpenaren kontrako beren arauak molda ditzaten erraztea.

- Ikastetxe hasieran tutoreak ikasleekin batera talde-arauen proposamen bat eginen du jazarpenaren kontra borroka egiteko, eta ikasgelan paratzeko kartel bat itxuratuko da.

- Era berean, tutoretzan kontu hartuko da ea hartutako arauak betetzen diren.

- Ikastetxe hasieran modu orekatuan banatuko dira ikasgelaren hainbat erantzunbehar eta ardura.

- Parte hartzeko kanal bat eratuko da ikasgelaren kudeaketarako iradokizun postontzi baten bidez.

- Prozedura psikometrikoak erabiliko dira taldearen eta bertako harremanen diagnostiko bat egin ahal izateko. (*Zer moduz zaude gelan?* Lourdes Escribano). Tutoreek eginaraziko dute ikastetxe hasieran eta erdialdean.

- Tutoretza elkarrizketa indibidualak eta hautemate erregistroak egitea, eta haiek komunean jartzea.

### 3.3.5 Curriculum ekintzak

Bizikidetzaren inguruko curriculum materialak erabili eta haiek ikasgelan epez epe lantzea (adibidez, hilabetean bi aldiz) oso lagungarria da jazarpenari kontra egiteko eta hezkuntza soziemozional eta balioei buruzkoan oinarritu giro positibo bat sorrarazteko:

Proposamenak Tutoretzan nahiz zenbait arlo jakinetatik gara daitezke:

- Ikasgelan debateak antolatzea arazoak, gatazkak, indarkeria eta tratu txarrak gai harturik, dela ikasgelako testuinguru hurbilenean sortuak, dela inguru zabalagoetan sortuak, ikasleen adinaren arabera.
- Egunkarietan indarkeriari buruzko berriak bilatu eta haiekin horma-irudiak edo txostenak itxuratzea ikastetxean jendaurrean paratzeko.
- Jazarpen egoerak erakusten dituzten bideoen gainean gogoeta egitea.
- *Bullying* egoera figuratuak aztertzea hartarako modutu gidaliburuen bidez.
- *Role-playing* batekin berdinen arteko indarkeria egoerak antzeztea eta erantzun alternatiboak proposatzea.
- Gogoeta eragitea ea jazarpen kasu baten berri jakiten dugunean dagokionari informazioa eman behar diogun ala ez (txibatoa edo eskubide urratuen defentsaria?). Modu bat baino gehiagotara egin daiteke: solasaldiak, debate antolatuak, gaiaren gaineko iritzi galdeketak, talde lanaldiak, kolokio txikiak bailiran, bi panel itxuratzea, bat txibatoaren ezaugarriekin eta bestea defentsariarenekin…
- Ikasle lagun hoberenari eman lekiokeen ustezko sari baten oinarriak idaztea, jazarlearen kontrako profil bat definituz.
- Abusu kasuen zerrenda bat itxuratzea denbora tarte jakin batean eta horiek nola ebatzi ziren baloratzea.
- Taldean Interneteko arriskuak lantzea eta ondorioak elkarrekin ateratzea.
- Ikasgela antolatzerakoan ikaste lanetarako kooperaziozko jardunbidea eta berdinen arteko laguntza oinarri hartzea.
- Komunikazio asertiboko trebetasunak garatzea (mezu ez agresiboak, entzumen aktiboa, lehen pertsonako mezuak)
- Ikasle ahulenek indar hartzeko aukerak sortzea.
- Taldeko lidergoa maneiatzea.
- Interakzio toxikoak edo botereaz abusatzen direnekoak galarazten dituzten proposamen metodologikoak erabiltzea.

- Norbere sentimenduak adierazi eta ulertzea errazten duten materialak erabiltzea.

- Haserrearen ulermena errazten duten teknikak erabiltzea, hala nola “Pentsatzeko txokoa", edo “Elkarrizketaren eta konkordiaren txokoa”.

- *Mindfulness* ariketak eta tentsioa nahiz erlaxazioa atzematen laguntzen dutenak erabiltzea.

- Diferentziak aitortu, onartu eta errespetatzea bultzatzen duten joko eta dinamikak erabiltzea.

- Pentsatzea, sentitzea eta jokatzea sekuentziatu eta bereizten laguntzen duten joko eta dinamikak erabiltzea.

- Taldearen barne lotura eta elkarlanetik ebazten diren problemak planteatzea errazten duten jokoak erabiltzea.

### 3.3.6 Arlo jakinetako ekintzak

- HIZKUNTZA klasean, jazarpena gibel-gai duten historiak sortzea, ikasgelan gailentze eta menperatze harremanak adierazten dituzten ipuin tradizionalak aztertzea (*21 relatos contra el acoso escolar*. HHEE).

- Prentsa tailerrak egitea nagusikeria, abusu eta indarkeria egoerak egun bateko egunkarietan analizatzeko, HISTORIA klasean.

- Gaiaren gaineko bideoak ikustea hainbat HIZKUNTZATAN.

- PLASTIKA HEZKUNTZAko klasean marrazki eta pinturen bidez geure emozioak adieraztea.

- Zenbait animaliaren portaera negatiboa aztertzea ZIENTZIA klasean.

- Defentsa pertsonal, gorputz adierazpen, erlaxazio, eta arnas metodoak ikasi eta ezagutzea GORPUTZ HEZIKETAKO klasean.

- Estresak pertsona jazarrietan sortzen dituen aldaketa fisiologikoak aztertzea BIOLOGIA klasean.

- Hainbat herrialdetako *bullying* kasuen prebalentzia estatistikoa aztertzea MATEMATIKA klasean.

- Ziberjazarpen kasu batean *chat* baten jardunbidea aztertzea INFORMATIKA klasean.

- Zenbait kantaren balioak eta mezuak aztertzea MUSIKA klasean.

Programazio didaktikoak curriculum materialak sartzeari dagokionez, ikus 3.4. ataleko bibliografia eta ikus-entzunezko materialen zerrenda.

### 3.3.7 Ikastetxeko testuinguruaren gaineko ekintzak

- Zuzendaritzak dei eginen die familien, bertako agintarien eta hainbat gizarte eragileren ordezkariei hitzaldi-solasaldi sail bat koordina dezaten balioei buruzko hezkuntza, botere estiloak, bizikidetza, jazarpen eta ziberjazarpen gaien gainean.

- Familia talde bat sortzea, hartan eskola bizikidetzako gaien gainean mintzatzeko (tertulia gidatuak, irakurketa kluba, hitzaldiak...).

- Udalari eskatzea behar diren ekintzak egin ditzala patioa hobetzeko programa bat aurrera eramateko.

- Eskola atazetan laguntzeko eskolaz kanpoko eremu bat diseinatzea.

- Batzordean, irakasleek, Guraso Elkartearekin batera, aztertuko dute zer bizikidetza giro dagoen eskola garraioko ibilbidean eta hobetzeko neurriak proposatuko.

- Gurasoen artean guardia sistema bat antolatuko da ikasleei laguntzeko ikastetxetik eta ikastetxera sartu eta ateratzeko.

- Bertako irrati eta egunkariak erabiltzea *bullying* eta ziberjazarpenaren gaineko mezuak hedatzeko.

### 3.3.8 Laguntza Programak eskaintzen duenaz gaineko prestakuntza

Agiri honetako 2. atalean zehazten den berariazko prestakuntzaz gain, ikastetxeak zilegi du hainbat prestakuntza jarduera bultzatzeko, jazarpena galarazi, atzeman eta ebazbideratzeko eragina duten alderdien gainean irakasleen gaitasunak gararaztea helburu.

Besteak beste:

- Bizikidetza positiboa bultzatzen duten hezkuntza metodologia eta estiloak, babespen gehiegiko jarrerei muzin eginez eta bai arrakasta akademiko hutsera bideratuei ere.
- Autoritate ereduak.
- Gatazken ebazpidea.
- Hezkuntza emozionala eta balioei buruzkoa.
- Bitartekotza.
- Kasuak gainbegiratzeko tailerrak-irakasleendako *coaching* saioak.
- Bizikidetza positiboari bultza egiteko taldeak sortzea.

Familiei prestakuntza prozesu bat ezarri eta koordinatzeko aukera baloratuko da (Guraso Elkartearekin batera). (19. ataza, Avilésen eskuliburua).

Guraso Elkarteari iradokitzea Nafarroako Gobernuak gatazken ezbapidea eta bizikidetzaren gainean ematen duen prestakuntzan parte har dezan.

## 3.4 BALIABIDEAK ETA MATERIALAK

Ondoren zenbait material interesgarriren zerrenda aurkezten dugu, baina jazarpenari eta eskolako bizikidetzari buruzko bibliografia izugarri zabala denez gero, Laguntza Programari bultza egiteko agiri saila zabalik dago eta programa ezartzen den bitartean osatu eginen da. Horrez gain, irakurleak Bizikidetzarako Aholkularitzak ikastetxe parte hartzaileei emanen dien bibliografia eta estekak kontsultatzea dauka. Webgune honetan dago:

**https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/educacion-en-valores/asesoria-para-la-convivencia/bibliografia**

### 3.4.1 Programa itxuratzeko

- José María Avilés. *Programa Antibullying* (CEPE 2015).
- Nora Rodríguez. *Stop Bullying* (RBA).
- Mercedes Blanchard Giménez/Estíbaliz Muzás Rubio. *Acoso escolar: Desarrollo, prevención y herramientas de trabajo* (Narcea).
- 57/2010 Foru Dekretua eta haren lagungarrizko materiala (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua).
- 2014/2010 Foru Agindua eta haren lagungarrizko materiala (Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua).
- Berdinen arteko tratu txarren gainean sentikortzeko programa (Gaztela-Leongo Junta).
- Torrego, J. C. (Koordinatzailea) *Resolución de conflictos desde la acción tutorial.* Madrilgo Erkidegoaren Hezkuntza Saila, 2003. (Gatazken ebazpidean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan izandako praktika, teoria eta esperientziak. Liburuak bai irakasle nola ikasleendako jarduerak proposatzen ditu. Edukiek gatazkak ebazteko trebetasun oinarrizkoak hartzen dituzte ardatz, ikasgela-taldea sortu eta mantentzekoak. Disrupzioa, berdinen arteko tratu txarra, ikasleen artean ikaslagunen klub bat eta haien arteko bitartekotza taldeak sortzea.
- Torrego, J. C. eta Fernández, I. *Protocolo de actuación urgente ante conflictos: violencia grave, acoso escolar, disrupción. Programa Atlántida.* Kanarietako Gobernua 2009 (PDF).

### 3.4.2 Tratu ona bultzatzeko ikasgela materialak

- Marshall B. Rosenberg, Ph. D.2, *Comunicación no violenta*. Gran Aldea Editores.
- RBA Nueva Empresa. *Cómo defenderse de los ataques verbales.*

- Gatazka ebaztearen gaineko bideo-jokoak (GROP).

- Andaluziako Junta. Eskolako Bizikidetza hobetzeko materiala.

- jcpintoes.en.eresmas.com/actividades4.pdf (Ikastetxe batean bizikidetzaren inguruko hainbat plan ezartzeko lagungarri diren koadernoak. Haietako batek bitartekotza jorratzen du eta besteak berdinen arteko laguntza).

- Vilda, A. M., *La resolución de conflictos a través de los cuentos*. ICCE. Madril, 2008.

- Fraile, A. (koord.) L*a resolución de conflictos en y a través de la Educación Física*. Graó.

- Lantieri, L., *Inteligencia emocional infantil y juvenil. Ejercicios para cultivar la fortaleza emocional con niños y jóvenes*. Aguilar. Madril 2009 (Sarrera eta praktika gidatuak, Daniel Golemanenak. Ingelesezko eta gaztelaniazko CD bat, gorputza erlajatu eta gogoaren arreta sakona lortzeko ariketak ditu. Adin guztietarako. Familian elkarrekin lan egiteko proposamen bat dauka).

- Boqué, C., *¡Tú sí que vales!* Graó. Bartzelona 2008.

- Jarque, J., *Cuentos para portarse bien en el colegio*, CCS. Madril 2008.

- López Caballero, A., *Cuentos para pensar. Enseñanza de valores en grupo.* CCS. Madril 2008 (Bigarren Hezkuntzarako ipuinak, jakingarriak eta motibagarriak; haietako batzuk Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.erako ere egokiak dira).

- Soler J. eta Conangla, M., *Aplícate el cuento*. Amat 2014 (3. argitaraldia) (Helduentzako ipuinak –batzuk haur eta nerabeentzat ere on dira– norbere garapenaren gainekoak, ekologia emozionalaren barrenean kokatuak).

- Castañer Mayer-Spiess, O., *La Asertividad, expresión de una sana autoestima*. Desclée De Brouwer 2012 (3. argitaraldia). (7. kapituluak ikasleekiko ekintza berariazkoak deskribatzen ditu).

### 3.4.3 Jazarpenaren inguruko ikasgela materialak

- *Benda kendu ezazu* foiletoak, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak argitaratuak.

- Anatole Pikasen metodoa.

- Bizikidetzarako Aholkularitzak ikastetxe partehartzaileei ematen dizkien gogoeta fitxa ereduak.

- Bizikidetzarako Aholkularitzak ikastetxe partehartzaileei emanen dien biktimarekiko elkarrizketa eredua.

- Bizikidetzarako Aholkularitzak ikastetxe partehartzaileei emanen dien ikasgelako ikasleekiko elkarrizketa indibiduala egiteko iradokizuna.

- José María Avilés. *Bullying. Intimidación y maltrato entre el alumnado.* Stee-Eilas.

- Lourdes Escribano. Eskola jazarpenaren gaineko ikastaroen osagarri emandako materialak.

- Rosa Serrate. *Bullying acoso escolar.* Laberinto.

- Mariano Dolci. *Garabatos Teatrales*. Octaedro.

- Lourdes Escribano. *Acoso entre iguales*, Septiembre 2015 Betelu.

- Romain T. Oniro. *Antibullying. Descubrir el acoso escolar y combatirlo.* Madril, 2010. (Ikasgelan ikasleekin irakurtzeko liburu ilustratua. Irakurterraza da eta *bullying* biktima diren ikasleentzat pentsatu da, iradokitzeko nola defenda daitezkeen "matoi"etatik; pistak ematen dizkie portaera hori ulertzeko. Matoientzat eta gainerako ikasleentzat ere bada)

- HH.EE. *21 relatos contra el acoso escolar*. SM, Madril 2008 (Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunean kurtsoz kurtsoko planteamendu didaktiko bat bada. Sierra i Fabra, Rosa Regàs, Espido Freire, Martín Garzo, Andreu Martín eta abar bezalako egileek hainbat ikuspegitatik gaiaren gainean idazten dute. Kontaerak irakurtzeak lagundu dezake ikasleak gaiaren gainean sentikortzeko eta irakurriaren ondoko gogoeta eginarazteko. Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako egokia).

- Leonor Pérez Casajús, Patxi Sanjuán Villafranca eta Belén Pérez de Prado. Eskola jazarpena prebenitzeko curriculum jardueren bilduma.

- Castell C., *Víctimas y matones. Claves para afrontar la violencia en niños y jóvenes*. CEAC..

### 3.4.4 Teatro foruma eta ikusentzunezko materiala

Ikastetxe pilotu bakoitzak teatro forum bat izanen du eskola jazarpenaren kontra, hau da, teatro emanaldi bat, Baketik enpresak egina, erakunde horrek ibilbide luzea eginda baitauka bake, bizikidetza eta giza eskubideen gaietan. Hezkuntza Departamentuak jarduera horren gastuak berdinduko ditu eta Bizikidetzarako Aholkularitzak ikastetxeak eta Baketik erakundea jarriko ditu harremanetan bien artean datarik egokiena ezar dezaten ikastetxean antzeztaldia egiteko, norbere agendaren arabera.

Ikusentzunezko materiala hezkuntza interes handikoa da metodologiaren ikuspuntutik ; horregatik, aipatu teatroaz gain, irakasleek aukera izanen dute bideo-jokoak, filmak, film laburrak, PPT aurkezpenak eta abar erabiltzeko baliabide didaktiko gisa. Ondoren halako batzuk aipatzen ditugu, baina Interneten beste anitz halako aurki daitezke, hezkuntza balio handikoak.

- Noaingo Elortzibar BHI. “Reacciona”.
- Javier Monzón González. *Eman bostekoa. Bullyingaren prebentziorako materiala.*
- Javier Monzón González. *Choca esos cinco. Material para la prevención del Bullying.*
- *Cobardes*, José Corbachok eta Juan Cruzek 2008an idatzi eta zuzendutako pelikula.
- Youtubeko bideo laburrak: “*Bullying* físico. Presentación”, “*Bullying* no sólo los golpes dejan marca”, “Excluir al otro también es *bullying*”, “Niña de 15 años se suicida”, “Qué suelazo !!! por chulo”, etc…

## 3.5 EKINTZEN ETA ATZEMANDAKO HOBEKUNTZEN EBALUAZIOA

Ebaluazioaren eta atzemandako hobekuntzen ebaluazioa egiteko, beharrezkoa izanen da, nagusiki, “Abiaburuko egoeraren azterketan” erabilitako tresna berak berriro erabiltzea, ulertzeko zer neurritan gainditu dugun egoera hura eta zer neurritan aurrera egin dugun azken buruko helburuantz, horrexek justifikatzen baitu programaren beharra, hots: “Zero *bullying* kasu”. Denak baterako gogoeta izango litzateke, “Laguntza Taldea”k koordinatua baina hezkuntza komunitatearen gainerako kideek ere hartuko behar lukete parte. Gogoeta honek kuantitatiboa eta kualitatiboa izan behar luke, etengabeko hobekuntzara bideratua.

Erabilitako tresnak, beraz, hauek dira:

- “Abiaburuko baldintzak aztertzeko protokoloa”.
- “Berdinen arteko tratu txarrari ematen diogun erantzuna aztertzeko protokoloa” (Jose María Avilés Martínezen *Programa anti-bullying* liburuko B.1 eta B.2 eranskinak).
- PRECONCIMEI (Avilés 2002).
- DAFO analisia.
- LIkasgelan txekeoa egiteko zerrendak:
  - *Mi vida en la escuela* (Arora 1989)
  - *Zer moduz zaude gelan?* (Lourdes Escribano)
- Urteko Konkrezioaren Ebaluazioa (Urteko Konkrezio Memoriaren eskema erabiliz).




# 4. ESKU-HARTZEA (PROTOKOLOA)

Jazarpen kasu ustezko batean esku-hartzeko protokolo eredu bat bada, ikastetxe bakoitzak erabili behar duena hezkuntza komunitateko edozein kidek edo Hezkuntza Departamentuak ikastetxeari esku-hartzeko eskatzen diotenean, berdinen arteko tratu txarra gertatzen ari dela susmatzen denean.

Hots: eskola jazarpenerako protokoloa beti abiatu behar da ikastetxe bakoitzean, 204/2010 Foru Aginduko 15. artikuluak agintzen duen moduan, bertan zehazten baita “eskola jazarpeneko kasuen aurrean esku-hartzeko protokoloa da ikastetxe guztiek aplikatu behar duten prozedura edozein pasadizo indarkeriazko eta sufrimendu sortzaile gertatzen denean, bereziki jazarpena izan ote daitekeen susmoa badago.”

Halaber, Bizikidetzarako Aholkularitzak eta Hezkuntza Ikuskaritzak lagun egiten diete ikastetxeei eskola jazarpenaren protokoloa aplikatzeko hezkuntza komunitateko edozein kidek esku-hartzea eskatzen duenean edo ofizioz hala agintzen denean.

## 4.1 ESKOLA JAZARPEN KASUETARAKO PROTOKOLO EREDUA

Eskola jazarpeneko kasu baten aurrean, ikastetxeek egin beharreko esku-hartzeak 47/2010 Foru Dekretuan araututa daude (57/2014 Foru Dekretuak aldatua), 204/2010 Foru Aginduan eta haren esku liburu Hezkuntza Departamentuak 2010. urtean argitaratuan.

Ikastetxe bakoitzeko Bizikidetza Planak halako kasuetan segitu beharreko protokolo zehatza hartuko du barne, eta bai ere nor izanen diren hura aplikatzeko arduradunak. Honako protokolo eredu hau eskaintzen dugu, ikastetxe bakoitzak gero bere hartan onartu edo nahi duen bezala molda dezan, hezkuntza komunitate horren ezaugarri edo premien arabera.

Ikastetxeak beti eta nonahi printzipio hauek bermatu behar ditu:

➜ **Babesa.** Lehenbiziko helburua da erasoa geldiarazi eta ez berriro hastea.

➜ **Esku-hartze efikaza, azkarra eta ez presakakoa:** indarkeriazko gertakari baten aurrean beti modu efikaz eta azkarrean esku hartu behar da, baina ez presaka edo itsuka. Hezkuntza erantzunak bitariko hezkuntza neurriak hartuko ditu: erreparatzaileak eta, hala komeni bada, diziplinazkoak.

➜ **Diskrezioa eta sekretua, hau da:** soilik kasuan ari diren profesionalek jakingo dute zein izan diren gertaerak, zirkunstantziak eta haien gainekoa esku-hartzeak.

➜ **Kasuko ikasle guztiekin esku-hartzea:** hezkuntza esku-hartzea kasuko ikasle guztiak barne hartzeraino hedatuko da: jazarpenaren biktimak, protagonistak eta lekukoak.

➜ **Zuhurtasuna eta sentiberatasuna** esku-hartzeetan, kontuan harturik problema honek sufrimendu handia sortzen duela, bai familietan nola biktimetan. Familien diskrezioa eta ikastetxearekin elkarlan egitea hark erabakitzen dituen neurriak aplikatzerakoan ere funtsezko betebeharrak dira.

| ESKOLA JAZARPEN KASU USTEZKO BATEN AURREKO PROTOKOLOAREN ESKEMA | | |
|---|---|---|
| **Zer gertatu da /zer egin?** | **Noiz?** | **Arduraduna** |
| Jakin dugu. | 1. eguna | Edonor |
| Tutoreari edo Zuzendaritzako kide bati haren berri ematen diogu | 1. eguna | Edonor |
| Kasua aztertu eta lantzeko agindua. Arduraduna izendatu. Babes neurriak. | 1. eguna | Zuzendaritza |
| **Begiraletza sistematikoa:** Protagonistak nor izan diren finkatu (biktima, erasotzaileak eta ikusleak). | 1. eguna | Zuzendaria, Ikasketaburua, Orientatzailea |
| (*) Konprobatzea ea Interneteko datuak eta pribazitatea babesteko arauak aplikatu diren. Ikasle eta gurasoen baimen informatua eskuratzea, hala behar bada, dispositibo eta informazio pertsonal ardurakoa eskuratzeko. | 1. eguna | Zuzendaria edo Ikasketaburua |
| Arazo serioa eta konprobatua den aztertzea. Prekauziozko neurriak.<br>Arazo larria ez bada eta argi ikusten bada biktima eta erasotzailearekin hitz eginez konpontzeko aukera badela, hobe horrela, gatazka ez dadin gehiagotara joan. | 1. eguna | Zuzendaritza edo Arduraduna |
| Biktimaren babesa bermatu eta antolatzea. | 1. eguna | Irakasleak eta beste |
| Ustezko biktimarekin mintzatu. Agian eskolaz kanpo eta eskola denboraz kanpo? Agian telefonoz? Beti ere diskrezioa segurtatu.<br>• Lagundu nahi diogula jakinarazi. Gure laguntza duela.<br>• Gertatzen dena kontarazi.<br>• Gaia landu behar dugula eta haren onespena behar dugula adierazi.<br>• Klasean lantzen badugu, zer nahiago luke; bertan egon ala ez?<br>• Haren alde gaudela ulertarazi.<br>**Gainerako protagonistekin zer elkarrizketa egin erabaki eta haiek egitea.** | 1./2. eguna | Arduraduna.<br>(8. eranskina) |
| Ikastetxeak beharrezko ikusten badu, **baimenak eskuratu ikaslearen sare sozialetara eta komunikazio tresnetara sartzeko** (*). | 2. eguna | Arduraduna |
| Baloratzea ea orain den momentu egokia familiekin mintzatzeko, bai biktimarenarekin nola erasotzailearenarekin. Berehala egitea komeni da edo itxarotea? (4. eranskina) | 2. eguna | Arduraduna Zuzendaritzarekin... |
| Ikastetxeak beharrezko ikusten badu, **gurasoek eman beharreko baimenak eskuratu ikaslearen sare sozialetara eta komunikazio tresnetara sartzeko** (*). | 3. eguna | Arduraduna |
| Dugun informazioa aztertzea.<br>Lehenbailehen kasuaren larritasuna zehaztu, zer kasu mota den:<br>• Jazarpena.<br>• Ziberjazarpena, sexting, grooming (genero **indarkeria** atzematen bada, berariazko protokoloa segitu, **5. eredua** **)<br>• Eraso puntuala.<br>• Gatazka.<br>Lan horri ekiteko arduradunak behar duen denbora izanen du, eta guardiako irakasleak hartuko dizkio bere klaseak.<br>Beharrezkoa da taldeko kide guztiei egitea elkarrizketa edo haietako batzuekin soilik? (2. eranskineko txostena itxuratzea)<br>***Eskuratu den informazio dokumentala begiratu eta babestu.** | 2. eguna | Arduraduna |
| Ikuskaritzari parte eman eta, hala komeni bada, Bizikidetzarako Aholkularitzarekin kontaktatu.<br>***1. Aholkua eskatu Poliziako Ikerketa Teknologikoko unitateei edo Fiskaltzari kasuan kasuan nola jokatu zehazteko.**<br>*2. Zer aholku hartu den, Adingabeen Fiskaltzari edo, hala komeni bada, Segurtasun Indarrei parte eman. | 2. eguna edo 3. eguna | Zuzendaritza |

| | | |
|---|---|---|
| Datuak aztertu eta erabaki gaia nondik bideratu. Esku-hartze plana eratu (neurriak zehazteko, 3. eranskina erabili) | 3. eguna (edo obserbazio sistematikoaren ondotik) | Arduraduna eta Orientatzailea |
| Hutsegitea kalifikatu eta, hala komeni bada, hezkuntza neurriak. | 3. eguna | Zuzendaritza |
| Taldearekiko tutoretza lana: funtsezkoa da kaltearen erreparaziora iristea, bai erasotzaileen aldetik nola taldearen aldetik.<br>Aurretik erabaki da, biktimarekin, bera klasean egonen den ala ez.<br>(Erabaki ea tutoreaz gain beste norbaitek esku hartuko duen). | 3. eguna edo 4.a eta hurrengoak | Tutorea |
| Biktimarekin lan egin. Saio bat edo batzuk. Biktimak erabaki badu tutoretza klasean ez egotea, momentu hori aprobetxatu. | Lehen momentutik | Tutorea- ¿Orientatzailea? Beste espezialistaren bat? |
| Erasotzaileekin lan egin. Bakarka eta taldeka. | 4. egunetik aurrera | Tutorea- ¿Orientatzailea? Beste espezialistaren bat? |
| Familiak jakinaren gainean jarri. Idatziz edo ahoz (4. eranskina). | 5. eguna | Arduraduna eta Zuzendaritza |
| Azken Txostena Ikuskaritzari. | Prozesu bukaera edo ikasturte bukaera. | Zuzendaritza |
| Jarraipena eta errebisioak. | Zehazteko | Arduraduna |

* Ekintza hauek hala komeni denean egin ziberjazarpen  edo *sexting* kasuetan.

** Taulan aipatu ekintzak behar bezala aurrera eramateko, gomendatzen da Bizikidetzarako Aholkularitzaren webgunean ageri diren material osagarriak ikuskatzea: Documentos de apoyo - Educación.

https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/educacion-en-valores/asesoria-para-la-convivencia/profesorado/documentos-de-apoyo

## 4.2 EKINTZARAKO PLANA. HAR LITEZKEEN NEURRIAK

Behin ezagutzara edo susmora iritsi garenean eskola jazarpeneko kasu bat gertatzen ari dela, protokoloaren garabidean aurrera egitean berariazko ekintza plana trazatu beharko dugu esku artean dugun kasurako: orientaziozko data 3. eguna izanen da, baina hori inguruabar askoren mende egonen da: zer datatan finkatuko den arduradunen bilera, informazio osagarria, Bizikidetzarako Aholkularitzaren esku-hartzea eskatu den ala ez. Hala ere, ekintza planeko neurriak ez dira horregatik atzeratu behar.

204/2010 F.A.ko aipatu 15. artikuluak zenbait ideia ematen ditu agertzera eskola jazarpeneko kasu posible baten aurrean ekintza protokoloa abian jartzerakoan:

✓ Eskola jazarpentzat hartzen da ikasle batek edo batzuek ikaskide bati modu jarraituan hitzezko irainak, arbuio soziala, intimidazio psikologikoa edo eraso fisikoa egiten dizkiotenean. Jazarpen portaera hori edozein toki edo alditan gerta daiteke, bai eta teknologia berriak erabiliz ere. Hartan ikastetxe bateko edo bat baino gehiagotako ikasleek har dezakete parte.

✓ Ikastetxeak beharturik daude gerta daitezkeen sufrimendua dakarten indarkeriazko pasadizo guztiak ikertzera, bereziki jazarpena dagoelako susmoa denean. Hezkuntza komunitate guztiak argi ulertu behar du indarkeriazko pasadizoen aurrean hezkuntza esku-hartzea ezinbestekoa dela.

✓ Hezkuntza komunitateko edozein kide beharturik dago Zuzendaritza jakinaren gainean jartzera jazarpen edo indarkeriazko pasadizo baten berri jakiten duenean.

✓ Ikastetxeek ekintzarako protokolo bat aplikatu beharko dute eskola jazarpeneko kasuen aurrean (…)

✓ Zuzendaritza da prozesuaren arduradun legala (…)

✓ Zuzendaritzak Ikuskaritzari jakinaraziko dizkio eskola jazarpeneko kasu guztiak.

✓ Zuzendaritzak beti esku hartu behar du (47/2010 F.D.ko 11. artikuluak dioenez) baldin problema gertatzen bada:

- Eskolako eremu eta orduen barrenean jarduerak egiten diren bitartean.
- Eskolako eremu eta orduez kanpo ere bai, lotura zuzena badute ikasleen eskubide-betebeharren erabileraren alterazioarekin.
- Eskolaz kanpoko eta osagarrizko jarduerak egiten diren bitartean.
- Ikastetxeko zerbitzu osagarriak erabili bitartean..

Ustezko jazarpen kasu bat tratatzerakoan, protokoloan aurrera egin ahala ekintza plan bat trazatu beharko dugu. Plan horren edukiari dagokionez, kasuan kasuan, arduradunek neurri batzuk edo beste batzuk sartuko dituzte.

Plana zehazten duten arduradunak zein diren, ikastetxeko Zuzendaritzak erabakiko du: hala ere, ikastetxeak esku-hartze formala eskatu badio Bizikidetzarako Aholkularitzari, Bizikidetzarako Aholkularitzak iradokitzen dituen neurriak bete beharrekoak izanen dira.

Ekintzarik egokienak hautatu ahal izateko, ondoren, erabili litezkeen neurrien zerrenda aurkezten da zehazteko zer neurri hartuko diren, eta egiten ari denaren eta kasuan kasuan egin litekeenaren ebaluazio bat egiteko:

## AUTO-EBALUAZIOA

** Eginda dagoenean laukitxoa markatu, edo zirkulua, hala tokatzen bada.*

☐ Haurraren datu pertsonalak: Kurtsoa:..........................................................................
Adina: ..........................................................................
Tutorea: ......................................................................

☐ Aplikatu al dugu 204/2010 F.A.ko eskuliburuaren jazarpen protokoloa?

☐ Zein neurri falta ditugu, protokoloak lehen egunetarako finkatzen dituenetatik?

☐ Jazarpen kasua dela ikusten dugu.

- ○ Bai, dudarik gabe.
- ○ Bai, duda zerbaitekin.
- ○ Ez da jazarpena, gatazka larria baizik.
- ○ Ez da jazarpena, eraso puntuala da.
- ○ Ez da jazarpena, gatazka sinplea da.

### LITEZKEEN EKINTZA GENERIKOAK

☐ Gure ekintza guztiek babes printzipioa aintzat hartzen dute.

☐ Gure ekintzak efikazak, azkarrak eta presa gehiegi gabekoak dira/ izan dira.

☐ Diskrezioaren eta sekretuaren printzipioa begiratzen dugu.

☐ Kasuan inplikatuta dauden ikasle guztiekin esku hartzen dugu.

☐ Zuhurtziaz eta sentimenez jokatzen dugu.

☐ Diziplina neurriekin jokatzen dugu.

☐ Baliabide lagungarri guztiak aztertu ditugu.

### IRAKASLEEK EGIN LITZAKETENAK

☐ Irakasleek sistematikoki erreparatzen diote ustezko biktimaren inguruneari egunaren nahiz jantokiaren hasieran eta bukaeran?

- ○ Ez, baina hala egin behar dute.

- ☐ Patioko nahiz jantokiko begirale jakin batzuek sistematikoki erreparatzen diote ustezko biktimaren inguruneari?
  - ○ Ez, baina agindu zehatzak emanen dira hala egin dadin. Nori erreparatu azaldu eta informazioa nola eman zehaztuko da.
- ☐ Irakasle talde osoak badaki gaiaren berri?
  - ○ Ez, baina neurri zehatzak hartuko dira irakasle taldeak gaiaren berri jakin dezan.
- ☐ Irakasle taldeko kideek badakite ikusi dutenaren berri nori eman?
  - ○ Ez, baina irakasle guztiei esplikatuko zaie nori eta nola eman behar dioten ikusi dutenaren berri.
- ☐ Sistematiko erreparatzen zaio ustezko biktimaren inguruneari trantsitu edo bainugeletan eta kontrol zaileko eremuetan?
  - ○ Ez, baina jarraibideak emanen zaizkie irakasleei egoerari adi egon eta denek jakin dezaten nori eta nola ikusiaren berri eman.
- ☐ Antolaturik dago ikaslearen babespen diskretua ikasgelaz aldatzeko momentuetan eta egunaren hasiera eta bukaeran?
  - ○ Ez, baina aginduak emanen dira babes hori antola dadin.
- ☐ Patioetan bermaturik dago babesa?
  - ○ Ez, baina hala eginen da. Jarraibide zehatzak emanen dira hori nola egin finkatzeko.
- ☐ Irakasleek badakite nola jokatu behar duten ustezko biktimaren kontra jazarpen edo tratu txar pasadizo bat ikusten badute?
  - ○ Ez, baina behar dena eginen da irakasle guztiek jakin dezaten halakorik gertatuz gero nori berri eman.
- ☐ Bizikidetza Batzordea arazoaren jakinaren gainean da?
  - ○ Ez, baina Batzordeari jakinaraziko zaio.
- ☐ Orientatzailea/a arazoaz jakinaren gainean da (kontuan hartu batzordeko kidea dela)?
  - ○ Ez, baina baloratuko da orientatzaileari berariaz jakinarazi behar zaion.
- ☐ Arazoa ebazteko beste baliabideren bat aztertu al dugu? (Osasuna, Bizikidetza Aholkularitza…)

### FAMILIEKIN EGIN LITEZKEENAK

***Ustezko biktimaren familia***

- ☐ Ikastetxeak modu egokian harrera egin dio ustezko biktimaren familiari?
  - ○ Ez, baina ikastetxeak ardura hartuko du aurrerantzean harrera egokia izan dezan. Eta segituko du hala egiten.
- ☐ Ikastetxeak erreferentziako pertsona bat izendatu du ustezko biktimaren familiarentzat? Pertsona hau da: ..........................................................................................................
  - ○ Ez, baina erreferentziako norbait jarriko da, pertsona hau, hain zuzen: .......... ..........................................................................................................

- ☐ Ikastetxeak komunikazio bide efikaza, azkarra eta norabide bikoa ezarri du ustezko biktimaren familiarekin, familiak ikastetxeaz fida dadin ahaleginduz, elkarrizketak zainduz eta ikasleagana interesa azalduz?
    - ○ Ez, baina bide horiek ezarriko dira eta bai hauek ere: posta elektronikoa. Telefonoa. Paperezko oharrak. Beste: (zehaztu): .................................................
    .........................................................................................................................
- ☐ Familiak naturaltasunez ematen du arazoen berri?
    - ○ Ez, baina eginahalean orientazioa emanen diegu hartarako.
- ☐ Abegitsu izaten gara familiarekin (nolako gizalegea duten inporta ez duela, errespetu faltaren muga argi utzirik, halere)?
- ☐ Irakurgairen bat gomendatu al diegu edo biktima eta haren familiarendako aurre-egiteko jarraibideak eman?
- ☐ Legeek zer dioten esplikatu al diegu?

***Ustezko jazarleen familiak***

- ☐ Ikastetxek kontaktatu du ustezko erasotzaileen familia bakoitzarekin?
    - ○ Ikastetxeak baloratuko du esku-hartzea familia horiekin kontatu behar den ala ez.
- ☐ Ikastetxeak erreferentziako pertsona bat ezarri die ustezko jazarleen familiei?
    - ○ Ikastetxeak baloratuko du erreferentziako pertsona hau jarri behar zaien ala ez: ....................................................................................................................
- ☐ Ikastetxeak komunikazio bide efikaza, azkarra eta norabide bikoa ezarri du ustezko jazarleen familiekin?
    - ○ Bide hauek ezarriko dira: Posta elektronikoa. Telefonoa. Paperezko oharrak. Beste: (zehaztu): .........................................................................................
- ☐ Eginahalak egiten dira familiek ikastetxeaz fidatu eta kolabora dezaten?
- ☐ Harrera egiten zaie familiei eta arazoak naturaltasunez adieraztea errazten?
- ☐ Irakurgairen bat gomendatu al diegu edo beren seme/alabarekin jokatzeko jarraibideak eman) (zehaztu zein).

***Familiak oro har***

- ☐ Ikastetxeak eskaini die familiei eskola jazarpenaren arazoaren gaineko informazio saio edo ekintzaren bat?
    - ○ Ez, baina baloratuko da hala egitea komeni den (ez da egokia kasu bati aurre egiteko prozesu betean gaudeino), hauxe erabakitzen da:..............................
    .........................................................................................................................
- ☐ Jazarpen egoeren aurreko irakurgairen bat gomendatu edo orientazioren bat eman diegu?
    - ○ Baloratuko da hala egin ala ez.

**BIKTIMAREKIN EGIN LITEZKEENAK**

- ☐ Ikastetxeak komunikazio bide seguruak ireki al ditu ustezko biktimarekin? (mintzatzeko libre da, txibatotzat hatua izateko beldurrik gabe?
  - ○ Ez, baina bide hauek ireki behar dira: .............................................................
  .....................................................................................................................
- ☐ Ikastetxeak erreferentziako norbait edo tutore afektibo bat ezarri dio biktimari lagun egiteko? Pertsona hau da: .....................................................................................
  - ○ Ez, baina baloratuko da erreferente hori jartzea komeni den ala ez.
  - ○ Pertsona hau izanen da: .........................................................................
  - ○ Tutore afektibo horrek edo beste norbaitek asertibitatea lantzen du biktimarekin.
- ☐ Orientatzailea biktimarekin bildu da (lagun egiteko)?
  - ○ Ez, baina baloratuko da hala komeni den (Tutorearekin baloratu)
  - ○ Erabaki hau hartzen da:
    - Hala eginen du.
    - Ez da komeni.
- ☐ Tutorea (edo erabakitzen den pertsona) biktimarekin bildu da (lagun egiteko)?
  - ○ Ez, baina baloratuko da hala komeni den (Tutorearekin baloratu)
  - ○ Erabaki hau hartzen da:
    - Hala eginen du.
    - Ez da komeni.
- ☐ Tutoreak (edo erabaki den pertsonak) hitz egin du biktimaren ikaskideren batekin, prozesuan lagun egin diezaiokeen batekin?
  - ○ Ez, baina baloratuko da hala komeni den.
- ☐ Biktimak badaki zehazki nori kontatu behar dion eraso bat gertatzen denean, bai eta noiz eta nola egin behar duen ere, kasuan kasu?.
  - ○ Ez, baina jakinaraziko zaio biktimari nola, noiz eta nori kontatu behar dion gertatutakoa.
- ☐ Segur al gara biktima ez dela epaituta sentitzen?
- ☐ Segur al gara ikasleak argi ulertu duela guk lagundu nahi diogula?
- ☐ Segur al gara ustezko biktimak badakiela zer egin behar dugun?
- ☐ Esan diogu ikasleari lagundu behar diogula bere problema konpontzen eta haren ekintza positiboa behar dugula?
- ☐ Irakurgairen bat gomendatu diogu?
- ☐ Trebetasun sozialen bat gomendatu diogu?

## EGIN LITEZKEENAK. **ERASOTZAILEAK**

- ☐ Beti eta modu egituratu batean, argi utzi dugu indarkeria, edozein agerkaritan dela ere, ez dela toleratuko ikastetxean edo BHIan? (ez da jakintzat ematen; ikastetxeak ardura hartu behar du mezu hau ikasgela guztietan esan egiten dela).
  - ○ Ez, baina gaia modu generikoan Tutoretzetara eramango dugu.
- ☐ Pikas metodoa erabili dugu?
  - ○ Ez baina aplikatuko da.
  - ○ Ez, baina bakarkako elkarrizketak egin behar ditugu.
- ☐ Konpromiso bat iritsi dugu ikasleekin?
  - ○ Horretan ari gara.
  - ○ Ez gara saiatu, baina ekin eginen diogu.
- ☐ Gogoeta fitxak aplikatu al ditugu?
  - ○ Ez, baina baloratuko dugu aplikatzea.
- ☐ Diziplinazko hezkuntza neurriak aplikatu ditugu?
  - ○ Ez, baina baloratuko dugu.
  - ○ Baloratu, eta ez zela bide erabaki genuen.
- ☐ Espedienterik egin al dugu?
  - ○ Ez, baina baloratuko dugu komeni den.
  - ○ Hala egin behar dugu edo abertitu egin dugu.
  - ○ Haiekin gogoeta egin dugu araudi eta legeen gainean.
- ☐ Talde bilerarik egin dugu erasotzaileekin?
  - ○ Ez, iruditzen zaigulako momentu honetan ez dela komeni.
  - ○ Ez dugu baloratu baina baloratu behar dugu.
  - ○ Honela egin behar dugu: ...........................................................................................
    ...................................................................................................................
- ☐ Galdeketarik edo soziogramarik pasatu dugu?
  - ○ Ez dugu egin baina hala egin behar dugu.
  - ○ Ez da bide.
- ☐ Enpatia eta asertibitatea landu al ditugu haiekin?
  - ○ Ez baina generikoki sartuko ditugu.
  - ○ Honela sartuko ditugu: ...........................................................................................
    ...................................................................................................................
  - ○ Asertibitatea landuko dugu.
- ☐ Barkamena landu al dugu haiekin?
  - ○ Ez baina generikoki sartuko dugu.
  - ○ Honela sartuko dugu:..............................................................................................
    ...................................................................................................................
  - ○ Ez da bide.

**IKASLE TALDEAREKIN (lekukoekin) EGIN LITEZKEENAK**

- ☐ Argi utzi dugu indarkeria, edozein agerkaritan dela ere, ez dela toleratuko ikastetxean edo BHIan?
  - ○ Ez, baina gaia modu generikoan tutoretzetara eramango dugu.
- ☐ Elkarrizketa egiten diegu ikasleei problema diagnostikatzeko?
  - ○ Ez da beharrik izan.
  - ○ Ez, baina hala eginen dugu.
- ☐ Galdeketarik pasatu dugu problema diagnostikatzeko?
  - ○ Ez da beharrik izan
  - ○ Ez, baina hala eginen dugu.
- ☐ Enpatia eta asertibitatea landu al ditugu haiekin?
  - ○ Ez baina generikoki sartuko ditugu.
  - ○ Honela sartuko ditugu: ......................................................................... ...................................................................................................................
  - ○ Ikasgelan landuko dugu asertibitatea
- ☐ Landu al dugu baldintza gabeko onarpena?
  - ○ Ez, baina gaia sartuko dugu tutoretzan eta ikasgaietan.
- ☐ Lan egin al dugu gaiari buruzko legeriaren gainean?
  - ○ Ez, baina tutoretzan landuko dugu gaia.
- ☐ Landu al dugu norbaitekin barre egin eta norbaiten bizkar barre egitearen arteko diferentzia?
  - ○ Ez, baina tutoretzan landuko dugu gaia.
- ☐ Landu al dugu zer diferentzia den salakuntza eta justiziaren artean?
  - ○ Ez, baina tutoretzan landuko dugu gaia.
- ☐ Talde konpromiso bat bilatu dugu
  - ○ Bai, baina ez dugu iritsi
  - ○ Ez zaigu beharrezko iruditu.
  - ○ Ez dugu egin ez eginen ere.
- ☐ Antolatu al dugu berdinen arteko babesa
  - ○ Bai, baina ez dugu lortu
  - ○ Ezin dugu
  - ○ Egin behar dugu
- ☐ Ikasleak inplikatu al ditugu, laguntzaileak, bitartekoak edo bizikidetza zirkuluetakoak?
  - ○ Ez, baina hala egin behar dugu
  - ○ Bai baina ez dugu lortu
  - ○ Ezin dugu, ez dugu ikasle laguntzaile, bitarteko edo bizikidetza zirkuluetako kiderik.
- ☐ Itzal ikaslerik jarri diogu (diskretuki lagundu eta babestu egiten dien ikaslea)?
  - ○ Ez, baina eginahala eginen dugu.
  - ○ Ez zaigu komeni denik iruditzen

- ☐ Entzumen aktiboko saiorik egin dugu?
  - ○ Zehazki dakite nori eta nola eman behar dioten indarkeriazko pasadizoen berri eta laguntza eskatu?
  - ○ Landu eginen dugu.
- ☐ Argi ulertzen dute legeak Zuzendaritzari berri ematera behartzen duela?
  - ○ Ez dugu landu baina hala eginen dugu.
- ☐ Bestelako neurri proaktiborik programatu dugu: proiekzioak eta abar...?
  - ○ Ez, baina hauek egin behar ditugu:................................................................ ........................................................................................................................

## INGURUNEAREKIN EGIN LITEZKEENAK

- ☐ Zerbitzu sozialekin kontaktatu dugu? Poliziarekin kontaktatu dugu?
  - ○ Ez da beharrezkoa izan.
  - ○ Egin behar dugu.
- ☐ Herriko aisia-talderen batekin kontaktatu dugu?
  - ○ Ez da beharrezkoa izan / ez da talderik.
  - ○ Egin behar dugu.
- ☐ Iradoki al dugu hezkuntza ez formaleko ekintza positiborik, ikastetxean nahiz ikastetxeaz kanpo?
  - ○ Ezin daiteke.
  - ○ Egin behar dugu.
  - ○ Ez da beharrezkoa.
- ☐ Herriko gazte zerbitzuekin kontaktatu dugu?
  - ○ Ezin daiteke. Ez da halakorik.
  - ○ Egin behar dugu.
  - ○ Ez da beharrezkoa.
- ☐ Biktimaren pediatra edo lehen laguntzako medikuekin kontaktatu dugu eta elkarren berri jakinda ari gara lanean?
  - ○ Ez da beharrezkoa.
  - ○ Ezin daiteke.
  - ○ Egin behar dugu.
- ☐ Ustezko erasotzaileen pediatra edo lehen laguntzako medikuekin kontaktatu dugu eta elkarren berri jakinda ari gara lanean?
  - ○ Ez da beharrezkoa.
  - ○ Ezin daiteke.
  - ○ Egin behar dugu.
- ☐ Biktimaren Osasun Mentalarekin kontaktatu dugu?
  - ○ Ez da beharrezkoa.
  - ○ Ezin daiteke.
  - ○ Egin behar dugu.

☐ Ustezko erasotzaileen Osasun Mentalarekin kontaktatu dugu?

- ○ Ez da beharrezkoa.
- ○ Ezin daiteke.
